

ataria

Amatasuna

Kultura

*Idoia Besadak eta Xabi Artolak hirugarrenez
irabazi dute Segurako txapelketa eta dagoeneko
Nestor Basterretxearen eskultura Iruran dago*

2018-11-30

967. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus



Berezi

NEURRI BEREZIAK

Gazte eta emakumeentzako moda

**44-64
neurriak**

www.berezitallasespeciales.com



Errementari kalea, 3 , Tolosa / Tel.: 943 674 965

berezitallasespeciales 



Jogurtak eta postreak

Gaztak

Izozkiak

Haragiak

Ondu xerratuak

Hestebeteak



Mahala Baserria - Leaburu (Gipuzkoa) - 943 670 724 - mahalanaturala.com

Zeliakoentzat gai dira gure produktu guztiak

Klika

Ezustearen iritsi da hogeita batgarrena, ez nuen oraindik espero. Gutuna ireki eta zera pentsatu dut: «Ene, bada! Zeinen azkar pasa den denbora, ia bi urte joan dira eta!» Izan ere, 2019arekin batera etorriko baita hogeita batgarrena, *Klika* leloarekin.

Hogeigarrenak, euskararen aldeko aldarria zirkuaren erritmoan zabaldu zuen Euskal Herriko punta batetik bestera. Bat eta zu, ni eta zu, zuek eta gu elkartzuz, batzuek garelako barneratu genuen orduko hartan. Lekukoa Iruñera iritsi zen, baina, ez zen bidea bertan bukatu. Testigua jende askoren eskutan geratu zen orduan: AEK-ko ikasle zein irakasleentzat batez ere. 2017ko apirilaren 10ean, etenik gabe, martxan zegoen jada hurrengo Korrika. Ordutik, AEK-ko Ahobizi zein Belarriprestak, klika eta klika ari dira euskararen alde.

Klika hizki zuritan idatzita duen pina Ahobizi dioen txaparen ondoan jarri dut komuneko apalean. Eta, hara, zer nolako dilema! Zer egingo dut nik orain? Biak jarriko ditut? Bana paparraren alde banatan? Bat bestearen azpian? Edo, Euskaraldia bukatu arte itxarongo dut Korrikakoa jartzeko? Arraioa! Zaila da gero euskalduna izatea! Halako momentutan garai bateko artilezko jertse handien falta sumatzen dut. Haiek bai fundamentuzko jertseak! Parrandara atera gintezkeen aldarrikapen guztiak soinean generamatxalarik: Korrika-ko pina, Euskal Herrian Euskaraz-koa, Amnistiaren alde-

koa, intsumisioaren aldekoa, zezenketan aurkakoa eta bar.

Aldarrikapenak ez dira, tamalez, ez gutxitu, ezta asko aldatu ere, baina, bai ordea, janzteko ohiturak. Biak bate-ra eramateari gehiegizko iritzita, momentuz, Ahobizi naitzela adierazten duen txapa aukeratu dut. Eta berriro zailantza sortu zait: non jarriko dut? Jertsean jartzen badut ez zait ikusiko, baina, ez dut txamarra zulatu nahi! Azkenean lepo-zapian jarri dut eta halaxe joan naiz familia arteko bazkari batera. Hori poza hango belarri eta aho festa

ikusitakoan! Hizkuntza ohiturak aldatzeko saiakera emaitzak ematen ari dela iruditzen zait. Gaur, mahaiaren bueltan, sekula baina gehiago entzun da euskaldun egiten gaituen hizkuntza.

Telefonoz ere egin dut proba, pina bihoztzean jarrita. Kanpin batera deitu dut, udarako erreserba bat egiteko asmotan. Nik euskaraz hitz egin diot eta bertako harrergileak gaztelaniaz erantzun dit. Euskaraz ulertzen duela, baina, ez dela hitz egiteko gai esan dit. Beno, ba, nik euskaraz eta berak gaztelaniaz, halaxe hitz egin dugu eta

biok eroso aritu gara.

Supermekatuan ere funtzionatu du Euskaraldiak: *Quieres bolsas? Ez. Al contado?* Bai... eta azkenean iritsi da... Puntuak nahi dituzu? Ez, eskerrik asko. Aupa! Garaipen txiki handi bat!

Abenduaren 4a iritsiko da, baina, euskararen aldeko lekukoak martxan jarraitu behar du, euskaldun izaten jarraitu nahi badugu. Hamabigarren egunean ere ezinbestekoa dugu belarriprest eta ahobizi izatea, euskarak bizirik iraungo badu. Elebitako elkarrizketetara ohitu behar dugu akaso, baina, euskara dugunok eutsi diezaiogun geure hizkuntzari eta oraindik euskara ez dutenei, eman diezaiogun euskara euren egiteko bidea. *Klika* egin dezagun guztiok euskararen alde, paparrean pin edo txaparik eraman beharko ez dugun eguna iritsi arte.



EDURNE AYUSO
KAZETARIA

**‘Quieres bolsas?’ Ez. ‘Al contado?’ Bai...
eta azkenean iritsi da...
Puntuak nahi dituzu? Ez, eskerrik asko.
Aupa! Garaipen txiki handi bat!**

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661 678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

Tolosaldeko gizarte eragileak




URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizsketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ataria



Agurtzane Estrada eta Iñaki Urdangarín liburuaren egileek, Eresargi abesbatzaren eta Hodei Iparragirrenen laguntza jaso zuten aurkezpenean. J.M.

Eskutitz bidezko lekukotzak

04

‘Cartas con remite de mujer y silencios de hombre’ liburuak idatzi dute Agurtzane Estradak eta Iñaki Urdangarinek

Jon Miranda

Liburuan 40 gutun baino gehiago jaso dituzte eta Urdangarinek aipatu duenez, «egiazko historia gogor eta sakonak dira. Ez dira telebista eta irratietan agertzen diren kasu mediatikoak eta lekukotza eman duten pertsona hauek isilean gorde dute orain arte euren egoera». Agurtzane Estradaren gonbita jarraituz parte hartu du liburuan billabonatarrek: «Ezaguna nuen gaia, noski, baina tematika be-

rria zen niretzat eta gutun hauek irakurrita nahikoa jota geratu nintzen».

Cartas con remite de mujer y silencios de hombre izena du liburuak eta gutun bidezko lekukotzak osatzeko ardura izan du Urdangarinek, izenburuaren bigarren parteak aditzera ematen duenez: «Lan honekin konturatu gara gizonezko asko ere biktima direla. Botere gehiegikeriarena egiazko arazoa da gure jendartearen eta denok ukitzen gaitu, bai emakumezkoak eta baita gizonezkoak ere. Gure ingurune gertukoenean, oso barneratuta dagoen kontua da».

Indarkeria jasan duten pertsonen barruan eragiten den mina du hizpide liburuak, «min fisikoa baino gehiago

bihotzean, ariman, sortzen diren hutsuneak dira okerrenak». Hala ere, lekukotza eman duten pertsonen zulo horretatik ateratzeko duten kemena azpimarratu dute egileek. Liburuan, gainera, Teresa Ahedo pintorearen lanak jaso dituzte. *Ni una más* bilduman indarkeria matxista landu du Karrantzako artistak eta margo horietako batzuk ekarri dituzte liburrura.

Urdangarín billabonatarra da eta herrian bertan aurkeztu nahi izan zuen liburuak asteazkenean, Subijana etxean. Eresargi abesbatzako kideek parte hartu zuten ekimenean eta baita Hodei Iparragirrek ere, aurkezpenak iraun zuen bitartean, margolan bat egin zuen zuzenean.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BUKALAI TALDEAREN EKARPENA EUSKARALDIAN

Zizurkilen Euskaraldiaren barruan antolatutako egitarauaren barruan, asteazkenean 17:30ean Bukalai dantza taldekoak kalejira alaian joan ziren Ugare aldera, han 18:00etan emanaldia eskaintzeko. Atzo *Gu eta gutarrak* ipuina aurkeztu zuten. J.M.

‘Mujeres en construcción’ lana emango dute Gurean

Gaur, 19:00etan filma eman eta gero, Begoña Atin zuzendariak eta Dori Monasterio biktimak solasaldian parte hartuko dute

Erredakzioa

Amasa-Villabonako Udaleko Memoria eta Bizikidetzat Batzordeak (EAJ, EH Bildu eta PSE-EEko talde politikoek osatzen dutena) antolatu du zineforum saioa, legealdi honetan hasiera eman zitzaion «giza eskubideekiko aintzatespen eta errespetuaren aldeko lanarekin jarraituz».

Zehatz azalduta, terrorismo eta indarkeria politikoaren biktima izan ziren 11 emakumeen lekukotzak jasotzen dituen eta 2009an Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian estreinatu zen *Mujeres en construcción* filma proiektatuko da. Filmaren zuzendarietako batek, Begoña Atinek, eta ETAk hildako lehen zibilaren alaba den eta filmean bere bizipena kontatzen duen, Dori Monasteriok solasaldi batean parte hartuko dute, gaur, proiektzioa amaitu eta gero.

EITBk eta Televisió de Catalunyaek elkarlanean ekoiztu eta Begoña Atin eta Maite Ibañezek zuzendu zuten *Mujeres en construcción* dokumentalak, atentatu terrorista bat jasan duten 11 emakumeen berreraikitze pertsonala erakusten du. 52 minutuko iraupena du eta ETako zein Espainiako eskuin muturreko biktimen lekukotzak biltzen ditu. Emanaldiaren ondoren, gerturatzaren diren herritarren galdera zein hausnarketari erantzunago dieten Begoña Atinek eta Dori Monasteriok.

Amasa-Villabonako Udaletik, doa-ko ekitaldi honetan parte hartzerat gonbidatu nahi dituzte herritar guztiak, bakearen kultura baten balioetan oinarrituta, «indarkeriarik gabeko orainaldiko eta etorkizuneko gizarte batekiko konpromisoa indartzen lagunduko duelako».

Bestalde, abenduaren 14an egingo dute hurrengo hitzordua, ordu eta leku berean, baina kasu honetan *Glen-cree* dokumentala proiektatuko da eta hitzordu honetan ere beste bi gonbidatu izango dira gaiari buruz hitz egiteko.

GUTUNAK

Irurako Udala: Belarri prest ala entzungor?

Lotsagarria, pasa den igandean, Iruran jazotakoa. Azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna-ren harira, udalak elkarretaratzera deitu gintuen herritarrok, plazan.

Bertaratu ginenon harridurarako, adierazpen instituzionalaren lehen hitzak gaztelaniaz izan ziren, baita minutu bateko isiltasuna egiteko eginiko eskaera ere. Errespetuz eta gaiaren larritasuna zela eta, ez genuen elkarretaratzea bere horretan utzi eta alde egin, baina aitortu behar dut tentatuta egon, egon nintzela. Gaztelania baliatzea herritarrongana zuzentzeko noiz eta Euskaraldian, Ahobizi txapekin doan udalbatzak ustez lehen hitza beti euskaraz egiteko konpromisoa hartu duenean; non eta euskal hiztunak baino batu ez ziren deialdi batean eta non eta Iruran, Ueman dagoen herri batean –horrek suposatzen du herritarren %70, gutxienez, euskal hiztunak direla– euskararekiko errespetu falta ikaragarria baino ez du erakusten.

Lotsagarria, halaber, pasa den asteartean plenoan jazotakoa. Bilduko zinegotzi batek gaia mahai gaineratu eta pleno bukaeran –lehenago ez baitzaigu herritarro hitz egiten uzten udal honekin– hitza hartu nuenean, herritar gisa lotsa sentitu nuela adierazi nienean euskara zinegotzia mutu geratu zen. Ez zuen hitz bat bera ere esan. Ez zuen justifikatu euren gaztelaniarako hautuaren arrazoiak; ez zuen damurik erakutsi; ez zigen barkamenik eskatu bertaratu ginen euskal hiztun guztioi.

Hori nahikoa ez, eta adierazpena irakurri zuen zinegotziaren ahotik entzun behar izan genuen «Iruran, denek izango dugu bada, tokia, ala? Edo euskal hiztunak bakarrik?». Euskararen aurka daudenen diskurso atzerakoienean etorri zitzaidan burura hura entzutean. Euskarari lehentasuna emateak beste hizkuntzak baztertzea ekarriko balu bezala. Esan beharrean nago, baztertuak gu izan ginela, euskal hiztunok, eta ez erdaldunak. Agerian geratu da beste behin, hizkuntza irizpide argirik gabe jarduten duela udalak, euskara gaztelaniarekin parekatuz eta, zenbaitetan, azken honi garrantzi handiagoa emanez, igandean bezala. Lotsa. Lotsa. Eta lotsa.

Noelia Lataburu Irurako herritar bat

HIRU PROIEKTU NAGUSI, UDAL AGENDAN

Kaolin Eder meategiaren ingurunearen berreskuratzea, Segoretxe eraikinaren bigarren fasea eta eskolako jolastokia estaltzeko proiektuaren berri eman zuen Altzoko Udalak azken herri batzarrean.

Imanol Garcia Landa

Hiru gai nagusi jorratu dituzte Altzon egin duten azken herri batzarrean: Kaolin Eder meategiak hartu zuen eremuaren berreskuratzea, Segoretxe eraikinaren bigarren fasea eta eskolako jolastokiaren estalpea.

Kaolin Eder meategia 1965ean itxi zen, eta handik urte batzuetara bi baserri hondoratu ziren, eta orduz gero hainbat hondoratzeko gertatu dira eta hainbat betetze lan egin dira. Eusko Jaurlaritzak egindako azterketa baten ondoren, Joseba Elduaen alkateak azaldu du Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena egin zuela udalak, «inguru kaltetuena berreskuratzen joateko». Berreskuratze proiektu horrek hektarea inguru hartzen du, eta 354.000 euroko aurrekontua du. Betetze lanak

egiten ari dira eta egonkor geratzeko gero kapa irazgaitz bat jarriko da eta gaineen lur begetala. Inguru hori aurrera begira larreetarako geratuko da. Bestalde, lur azpiko ura bideratuko da eremu horretara ahal den gutxien joateko.

Obrak hasi dira, eta berez hiru hila-beteko epea dute bukatzeko, baina asko baldintzatuko du eguraldiaren egoerak. Obrak bukatzen direnean, Altzoko Handiaren ibilbidearen zati bat, itxita dagoena, berriro erabilgarri izango da.

Segoretxe eraikinaren bigarren fasea izan zen jorratu zen beste puntuetako bat. Lehenengo fasea aurtengo urtearen hasieran bukatu zen, eta besteak beste, udal ostalua eta turismoko informazio puntua jarri zen martxan. «Lehenengo beharrak asetzeko obra bat izan zen hura, baina bagenekien hainbat gabezi daudela», esan du El-

duaiek, eta, besteak beste, biltegia, komunak, irisgarritasun baldintza batzuk eta teilatuaren egoera aipatu ditu.

Bigarren fasearen aurrekontua 585.000 eurokoa da, eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza 331.000 eurokoa da. Fase honetan jangela zaharra bota egingo da, eta egungo sukalde handitu. Eraikina atzealdetik zabalduz bertan jangela jarriko da. Lurzuaren maila mantendu egingo da eta bertan irisgarritasuna betetzen duten komunak jarriko dira. Igogailua jarriko da, goiko bi solairuetarako, eta behean egingo den biltegiara joateko. Azpiko solairu horretan komuna eta langileentzako aldagelak jarriko dira. Goiko bi solairuak momentuz hutsak geratuko dira, eta udaletik aztertzen ari dira zertarako erabiliko diren. Obrak egunotan hasiko dira eta sei hilabete inguru iraungo dute.

Hirugarren proiektu nagusia eskolako jolastokian estalpea jartzearena da. «Frontoiaz aparte, Altzok ez du beste leku estalirik», esan du Elduaiek. «Neguan eguraldi txarra egiten duenean, nahiko toki hotz eta haizetsua da eskolako jolastokia, eta hainbatetan eskatu digute ea posible den jolastokia estaltzea».

2019rako aurreikusten den proiektua da, eta udako oporrak aprobetxatuz egin nahi dena, eskola itxita dagoenean. 245.000 euroko aurrekontua du. «Proiektua eginga dago, eta bidaltzea dago aldundira. Aldundiak diru laguntza bat ematen du, %38koa dena, baina oraindik ate gehiago jotzea toka-

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Altzoko eskolako jolastokia estaltzeko asmoa du udalak. I.G.L.

tzen zaigu finantziazio handiagoa lortzeko, eta proiektua bideragarria izateko». Estalpea egitean, eskola kanpoko orduetan herritar guztientzako erabilgarria izango litzateke.

Beste gai batzuen informazioa

Hiru proiektu nagusi horiez gain, beste zenbait egitasmo eta gairen inguruan informazioa eman zien udalak herritarrei. Horietako bat Altzo Azpiko zerrategiaren inguruan izan zen. «Bere unean EAJren udal gobernua saltatutako tramite batzuen ondorioz, -ingurumen inpaktu azterketa esaterako-, gaur egungo udalak hainbat gauza modu egokian jarri behar izan ditu», esan du Elduaienek. Abokatuetan, epaitegietan eta teknikarietan gastua suposatu duela gaineratuz.

Beste gaietako bat, karmeldarren komentuarekin bertako frontoiaren inguruan udalak hamar urterako egingdako hitzarmena da. Frontoiaren erabilera eta mantenua udalaren esku geratzen da eta horren truke hainbat obra egin dira eta egingo dira. Herritarrek eta udalak dute frontoia kudeatzeko lehentasuna, eta, adibidez, pilotako eskolakoak erabiltzen ari dira.

Turismoa ere hizketagai dute. Altzoko Handia dela eta, sortu den eta sortuko den mugimenduaren inguruan prozesu parte hartzaile bat egin dute. Ondorioak jaso berri dituzte, eta udalaren asmoa da udaberrira aldera ikusi diren egitekoak bideratzea.

Euskararen alorrean, hizkuntza ikasteko oinarrizko talde bat sortu da herrian, sei pertsonen osatuta. Horrez gain, mintzalaguneko hiru talde sortu dira. «Hiru herritarrek hartu dute konpromisoa mintzalagun taldeak dinamizatzeko eta eskertzen da egiten dute lan hori», argitu du Elduaienek.

Bestalde, urte bukaeran edo urte hasieran Amabineko bidearen Altzoko zatia egiteko asmoa dute. Bide horrek Alegia eta Altzo lotuko ditu oinez eta bizikletaz egiteko. Alegiako Udalarekin hitzarmena eginga du udalak bakoitzak bere zatia egiteko.

Horrez gain, Ur Kontsortzioarekin batera hainbat baserri ingurutan suaren aurkako hidranteak jarri dira, hau da, ur sarera lotura izateko puntuak. Zuntz optikoari dagokionez, herrigunean jarri da, baina oraindik aldundiak herriko hainbat lekutara zabaltzeko behar du. Beste gaietako bat Amategi industriagunean bizikletentzako eta oinezkoentzako bide bat egokitu dela izan da. «Txaramatik Lizartzara bidegorria egiteko proiektua dugu, Leaburu-Txarama, Altzo eta Lizartzaren artean. Lanketa egiten ari gara aldundiari hainbat alternatiba aurkezteko, eta bitartean Amategiko eremuan hasi gara hainbat gauza egiten», esan du Elduaienek.

Bukatzeko, hilerrirako bidean egingdako obrak: autoarekin bertara joateko bide bat jarri da, eta bertatik ateratzeko beste bide bat egokitu da.

Celes Alvarez, 'Naparra'-ren ama, hil da

Erredakzioa Lizartza

Urtero familiak Lizartzan duen Igarola baserrian izaten zen Celes Alvarez, herritarrek Joxe Miguel Etxeberria Alvarez *Naparraren* desagertzea gogoratzeko egiten duten ekitaldian.

«Badakit Jose Migel hila dela, baina aurkitu egin behar dut, bestela sekula ez dut itxaropena galduko. Eta orain arte atxilotuta, nonbait ezkutututa, eduki izan balute?». Celes Alvarezen hitzak dira. Bere seme Jose Miguel Etxeberria *Naparrak* ari da. 38 urte egin ditu Alvarezek haren bila, 1980ko ekainaren 11n Ziburutik eraman zutenetik. Komando Autonomo Antikapitalistetako kidea izaki, atxilotuta zutela uste izan zuten lehenik; baina Baionako polizia etxean ez zegoela egiaztatuta, bestelako susmoak piztu ziren.

Auzolanerako deialdia egin du udalak

Erredakzioa Amezketa

Inpernerreka-Larrondo eta Ondarreko langara doazen bideak garbitzeko auzolanerako deialdia egin du Amezketako Udalak. Auzolana abenduaren 6an eta 8an, 09:00etatik 14:00ak arte, egiteko asmoa dute. Ondorengo lanak egin nahi dituzte bide horietan: eroritako zuhaitzak moztu eta kendu bidea txukun utziz, zabor bilketa, ubideak garbitu, eta orokorrean bide garbiketa eta txukunketa.

Auzolanean parte hartzeko asmoa duten guztiek abenduaren 3rako, egun hori barne, udaletxean izena ematea komeni dela azaldu du udalak, bi eguneko lanaldia babesteko denboraz aseguru egin ahal izateko. Abenduaren 4an, 20:30ean, bilera egingo da kultur etxeko areto nagusian zereginak eta lanak antolatzeko.



Amezketako Pilotabizi Elkarteak pilotaren munduko eragile ugari elkartu zituen atzo. A. IMAZ

Txapelketa aurkezpen bat baino gehiago

Euskal Herriko Pilota Elkarteen Arteko V. Txapelketan eskualdeko hiru ordezkari egongo dira

Asier Imaz

Pilotabizi Pilotazaleen Elkarteak pilota munduko eragile ugari elkartu zituen atzo Amasako Hika Txakolindegian: federazio desberdinetako ordezkariak, pilota elkarreetako ki-deak, pilotari ohiak nahiz pilotariak, kazetariak eta pilotazaleak.

Amezketako elkarteak bi helbururekin antolatu zuen Hika-ko ekitaldia: alde batetik, Euskal Herriko Pilota Elkarteen Arteko V. Txapelketa aurkezteko, eta bestetik, esku pilotaren inguruko hausnarketa bat martxan jartzeko.

Parte hartzea, errekorra

Abenduaren 3an hasiko da Elkartearen Arteko V. Euskal Herriko Esku Pilota Txapelketa. Pilotabizikoak «harrituta» azaldu dira parte hartzearekin, orain arteko altuena izango delako: «Ikargarrizko harrotasuna sortzen digu horrek; ondo egindako lanaren emaitza

dela uste dugu, eta aurrera jarraitzeko indarberrituta gaude». 24 elkarte horietatik hiru Tolosaldekoak izango dira: Amezketako Zazpi Iturri, Tolosako Tolosa CF Aurrera eta Villabonako Behar Zana. Hego Euskal Herriko lau lurraldeek izango dute ordezkari-tza txapelketa honetan. Aurre kanporaketan ondoren lehen fasea Amezketan jokatu da, abenduaren 16an, 22an, 29an eta urtarrilaren 4ean. Bigarren fasea Idiazabalen izango da, eta final-laurdenetatik aurrerakoa Tolosako Beotibarren. Finala martxoaren 10ean izango da.

Hika Adierazpena

Pilotabizi elkarteak lau puntuko adierazpena aurkeztu zuten atzoko ekitaldian. «Pilota mundua bultzatu, garatu eta modernizatu» nahian talde baten sorrera iragarri zuten, elkarlanean. «Promozioa, formakuntza, proiektzioa eta hedapena bultzatzea» izango litza-teke talde horren helburua. «Horretarako, baliabide eta asmo partikularrak bateratu, gehitu eta partekatu» behar direla uste dute Pilotabizi Elkarte-ko kideek.

Aulkitik


‘Futboleant hasi genun’

*Futbolent hasi genun
guk Euskaraldia
Eskoitzarrei Ibarran
hartuta neurria
2-0 irabazita
lortuta saria
baña gelditu ginen
dutxa gabe ia*

*Nahiz ta haukin eduki
zenbait tira-bira
«kontuz hau hanka da ta
hor dago baloia»
dena ez da asuna
kolpe ta eroria
zerbeza hotza eta
patata tortilla*

*Belarria ez ezik
prest gorputz guztia
bi korrika saio in
ta arnas gabezia
aulkian ordea bai
guk aho bizia
Zubiaurreko kafea
segitzeko astia*

DOINUA: Astoa ikusi nuen



**MAITE LACA ETA
AMAIA OLAZABAL**

LAUBURU IBARRA, GIPUZKOAKO LIGA



TALDE NAGUSIAK

LASKORAINKE

Otxartabe

Areto futbola. Bigarren B Maila.

Larunbatean, 18:00etan,

Usabal kiroldegian.

Sala Quinto

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Bigarren B Maila.

Larunbatean, 18:30ean, Quintoko

kiroldegian.

SAMANIEGO ORIXE

Ordizia

Areto futbola. Gipuzkoako Liga.

Tolosako Uzturpe pilotalekuan,

ostiralean, 20:30ean.

Idiazabal

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Gipuzkoako Liga.

Idiazabalen, ostiralean, 20:15ean.

Trintxerpe

ANOETA FT

Areto futbola. Gipuzkoako Liga.

Pasaian, larunbatean, 16:00etan.

Astillero

TOLOBOLEI BIDE BIDE

Boleibola. Bigarren Maila.

Igandean, 11:30ean, Kantabrian.

TOLOSA CF

Leioako Emakumeak

Futbola. Neskak. Euskal Liga.

Larunbatean, 17:30ean, Tolosako

Usabal futbol zelaian.

Eibar

TOLOSA CF

Futbola. Mutilak. Erregional Ohorezko

Maila. Larunbatean, 18:00etan,

Eibarren.

Touring

BILLABONA KE

Futbola. Mutilak. Erregional

Preferentea. Larunbata,

16:30ean, Oreretan.

Santo Tomas Lizeoa

TOLOSA CF 'B'

Futbola. Mutilak. Erregional

Preferentea. Larunbata,

17:30ean, Donostiako Berion.

INTXURRE KKE

Astigarragako Mundarro

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.

Larunbata, 18:00etan, Alegiako Elorri
futbol zelaian.

Kostkas

DANENA KE

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.

Larunbatean, 15:30ean, Donostiako

Matigoxotegin.

Añorga

TOLOSA CF 'B'

Futbola. Neskak. Ohorezko

Erregional Maila. Larunbatean,

19:45ean, Añorgan.

Oiartzun

INTXURRE KKE

Futbola. Neskak. Gorengo Maila.

Igandean, 15:45ean, Oiartzunen.

Egia Kopidin

TOLOSA CF

Eskubaloia. Lehen Nazional Maila.

Larunbatean, 20:15ean, Donostiako

Egiako kiroldegian.

TAKE REDLINE MEKANIKA

Getxo

Saskibaloia. Mutilak. Lehen Maila.

Igandea, 11:20ean, Tolosako Usabal

kiroldegian.

Atletico San Sebastian

TAKE

Saskibaloia. Neskak. Gipuzkoako

Seniorrak. Ostirala, 20:15ean, Tolosako

Usabal kiroldegian.

OSTIRALA AZAROAK 30

EIBARKO ASTELENA FRONTOIA

BINAKAKO TXAPELKETA

17:00. Pilota jaialdia:

- Retegi BI-Erostarbe/Jaka-Jaunarena.

- Altuna III-Martija/Irribarria-Zabaleta.

- Mendizabal III-Martinez/Elordi-Irusta.

LARUNBATA ABENDUAK 1

TOLOSA, OARGIELKARTEAN

OARGIKO IX. BOULDER

TXAPELKETA

10:00. 16 urtez azpikoak, izen ematea,
dohain.

10:30. 16 urtez azpikoen txapelketa.

15:30. Helduen izen ematea. 5 euro.

16:30. Helduen txapelketa.

IGANDEA ABENDUAK 2

AMEZKETA

LARRUNARRI FRONTOIA

EMAKUMEA MASTER CUP

10:30. Finalerdia, lau eta erdian:

- Miren Larrarte/Olatz Arrizabalaga.

- Patri Espinar/Maite Ruiz De Larramendi.

- Araitx Eizagirre/Oihana Orbegozo.

- Amaia Aldai/Naroa Elizalde.

BILBOKO BIZKAIA PILOTALEKUA

BINAKAKO TXAPELKETA

17:00. Pilota jaialdia:

- Mendizabal III-Ruiz/Etxeberria-

Erostarbe.

- Urrutikoetxea-Aretxabaleta/Artola-

Mariezcurrrena II.

- Dario-Irusta/Ugalde-Martinez.

IBARRA

BELABIETA KIROLDEGIA

EUSKAL HERRIKO SOKATIRA

TXAPELKETA

11:30. Bigarren jardunaldia:

- Emakumeak 260 kilotan, 10 talde.

- Gizonezkoak 300 kilotan, 9 talde.

TOLOSA

USABAL KIROLDEGIAN

IV. IRRISTAKA INDOOR SARIA

10:00. Gaztetxoan eta helduen saria.

Kanporaketak lauren artean izango dira.

Horietatik bik egingo dute aurrera. Guztira,

74 parte hartzaile izango dira.

**BILLABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**

ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 1 • 10:00
Infantil txiki maila
BILLABONA FKE - TOURING K.E

Larunbata, 1 • 15:30
Jubenil 1. maila
BILLABONA FKE - OSTADAR S.K.T.

Larunbata, 1 • 17:45
Jubenilen ohorezko maila
BILLABONA FKE - OSTADAR S.K.T.

Inork ez zizun esan

Inork ez zizun esan zein nekeza den, hobe zenuela hautatzea bezperatik dena prest uztea, ibili gabe goizean makarrak kendu ezinik eta txapa bila, nagiak ateratzeko denborarik gabe eta aho bero txapa madarikatzen, gosaria kontrako eztarritik eta txapa auskalo, goizeko zazpitan, Euskaraldiaren lehen egunean, inork ez zizun esan zein nekeza den, hobe zenuela pentsatzea

txapa non jarri, jertsean ala txamarran, noiz ezkutan eta noiz bistan, ostiralez, goizeko bederatzi-tan euripean erabaki ezinik aritu gabe, inork ez zizun esan, hobe zenuela hautatzea Uemaren pres-takuntza saioetara joatea pintxo potean galdu gabe Euskaraldiaren lehen egunaren bezperan, ja-kingo zenuela hartara biharamunean kafe ga-raian zer egin, inork ez zizun esan, edo agian bai, hobe zenuela hautatzea Belarriprest izatea, prest egon behar dela aho bizi izateko, ez dela nahikoa euskaldun euskaltzale izatea, inork ez zizun esan, eta zeuk ere ez diozu inori esango zenbat aldiz lotsagorritu zinen ostiralez, Euskaraldiaren lehen egunean, ohartu zinela ohartzerako erdaraz erantzuten zeniola erdaraz galdetzen zizunari

niola erdaraz galdetzen zizunari, goizeko zazpitan presaka aurkitu eta azkenean, euripean, jertsean baina txamarra irekita jartzea erabaki zenuen txapa bistan zenuela, inork ez zizun esan, zein nekeza den jendearen bularrera disimuluan begiratzea, txapa bila, Euskaraldiaren lehen egunean, konturatuko zinela zenbat erdaldun elebakar dagoen urrutira joan gabe eta zenbat euskahaldundu urrutixeago jo-

anda, inork ez zizun esan, kasik gehiago hitz egiten duzula whatsapppe azhoz baino, eta jendea zu baino bizkorragoa dela orokorrean, auskalo ze aplikazioekin norbere argazkia txapa barruan sartzeraino, inork ez zizun esan, hain mesfidati batzuek eta batzuei, hain etxeko besteek eta besteei begiratuko zizutenik eta zenienik txapa bategatik, inork ez zizun esan eta ez

zenuen asko espero hainbeste buruhauste emandako txapa garbitzera botako zenuenik ostiral iluntzean, Euskaraldiaren lehen egunean, inork ez zizun esan garbigailuak buelta ba-koitzean gogoraziko zizunik zein ederra den euskaldun izatea, eta zein aspergarri behar duen izan munduko hiritar izatea hautatzeak.



MIKEL ARTOLA
 GALTZAUNDIKO
 KIDEA

Ez dela nahikoa euskaldun euskaltzale izatea, inork ez zizun esan, eta zeuk ere ez diozu inori esango zenbat aldiz lotsagorritu zinen ostiralez, Euskaraldiaren lehen egunean, ohartu zinela ohartzerako erdaraz erantzuten zeniola erdaraz galdetzen zizunari



Haragiaren sekretuak

Haragia atsegin dugu, eta asko gainera. Mota oso desberdinetako haragia jaten dugu eta gizakiak hori egin du antzinatik. Ziur aski Afrikako klima aldaketa gertatu zenetik hasi ginen haragia elikaduran sartzen eta harrezkerro hainbat untxi, behi, oilo, arkume eta txerri jan ditugu. Proteina eta energia iturri garrantzitsua izanda ere, baditu alde ilunak; izan ere, beste animaliak akabatu behar ditugu gure elikadurarako. Egia da gizakion garunaren tamaina handitzea haragi kontsumoak ahalbidetu zuela, baina, egun, badira beste zenbait proteina-iturri, haragi jatea zalantzan jartzen dutenak –nagusiki ikuspuntu etikotik–.

Nolanahi ere, haragiak hainbat sekretu gordetzen ditu eta zientzia asko dago noizbait animalia baten giharra izan zen horretan. Oro har, haragiak hiru osagai nagusi ditu: ura, proteinak eta gantza. Anatomikoki muskuluehuna, ehun konektiboa eta gantz-ehuna bereizten dira. Muskulu-ehuna haragiaren zati gorria da, alegia, jaten duguna. Gantz-ehuna haragiaren zati zuriak dira, normalean –eta ahal den neurrian–, labanarekin moztuz banatzen direnak. Ehun konektiboa haragiak duen film moduko atala da, haragi zatien artean egon ohi dena.

Animalien muskulua haragi bihurtzeko bide horretan, ziur noizbait entzun duzula animaliak hil aurretik ez direla estresatu behar. Bada, hori horrela da eta kimikan dago azalpena. Animalia hil ondoren, bere zelulek bizirik jarraitzen dute denbora labur batez. Denbora horretan zehar zelulek haien energia kontsumitzen dute eta hori egin ahala azido laktikoa sortzen da. Azido laktiko horrek entzimen jarduera murrizten du eta mikroorganismoen hazkuntza saihesten du. Bi efektu horien



ondorioz, hildako animaliairen zeluletan dagoen jarduera metabolikoaren ondorioek haragiaren kalitatea hobetzen dute. Alabaina, animaliak urduri egon badira hil baino lehen, estres horren ondorioz zeluletako energia azkarrago kontsumitzen da eta ez da hainbeste azido laktiko sortzen. Haragiaren kalitatea, hortaz, ez da hain ona izango.

Haragiaren koloreari buruz ere badago zer esan. Askok pentsatuko duzue, nik neuk duela gutxi arte bezala, haragi gordinaren kolorea –edo xerra bat desioztean askatzen den likidoarena– odolaren gorria dela. Bada, hori ez da zuzena. Haragiaren kolorearen erantzulea mioglobina izeneko proteina da. Proteina hori giharrretan dago eta odoleko hemoglobinarekin antzekoa da –horregatik da odola ere gorria–. Mioglobina oxigenoa muskuluetako zeluletara eramateaz arduratzen da

eta kolore purpura du. Alabaina, mioglobina inguruneke oxigenoarekin kontaktuan dagoenean oximioglobina bihurtzen hasten da eta horrek du haragi gordinaren kolore gorria. Era

berean, oxidazio horrek jarraitzen badu –eta azkarrago jarraitzen du arrera giro tenperaturan hozkailuan baino–, oximioglobina metamioglobina bilakatzen da eta haragi ustelaren kolorea agertzen hasten da.

Hori ez gertatzeko, edo behintzat astiroago gertatzeko, supermerkatuan aurkitzen dugun haragia karbono dioxido eta nitrogeno atmosferapean gordetzen da. Oxigenoaren ordez karbono dioxidoa dagoenean, oximioglobinarekin ordez karboximioglobina eratzen da. Karboximioglobina man-

Animaliak urduri egon badira hil baino lehen, estres horren ondorioz zeluletako energia azkarrago kontsumitzen da eta ez da hainbeste azido laktiko sortzen



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN
DOKTOREA ETA
ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

tsoago degradatzen da eta, hortaz, haragiak itxura hobea du denbora luzeagoan. Zenbait herrialdetan karbono monoxido pixka bat ere gehitzen da eta, horrela, haragiak kolore gorria mantentzen du ia ustela egonda ere. Hala ere, lasai ene irakurle, Europar Batasunean karbono monoxidoa oraingoz ez baita onartzen. Oraingoz.

(Z)AMA

Mendetan, emakumeek nahitaez izan beharreko -tasun bat izan da amatasuna; hilekoaren hurrengo pausoa, benetako emakume bilakatzeko. Hori, eta belaunaldi berriak sortzeko prozesu biologikoa. Gorputzari loturiko kezkez harago, ordea, amatasuna aspaldi bilakatu zen taula-jokoan mugitu beharreko pieza, gizarte egiturak politikoki berrantolatzeko.

Itzea Urkizu Arsuaga

Jertse zabal bat jantzi duzula-ko, azalpenak ematen aritu beharra. Pintxo-potean lagunei gezur txikiak esatea, ezertaz kontura ez daitezen. Orain arte eraiki duzun eta eraiki zaituen inguru sozialetik bat-batean desagertzeko beldurra sentitzea. Bikote harremana enpresa baten pare antolatzea, zer gerta ere. Selektibitateaz geroztik jomugan izan duzun lanpostua kolokan ikustea. Edo, lanaren eta bizitzaren arteko marra hertsian funanbulista lanetan aritzea. Zure adin eta egoera zibilari tokatzen zaiona egin ez, eta norbaiti huts egiten ari zarela pentsatzea. Ezezagu-

nen iritziak entzuteko obligazioa izatea, haiek nahi duten doinu eta neurrian.

Hori guztia da amatasuna, emakumeentzat; hori guztia, eta beste hainbeste egoera, erabaki eta zalantza. Izan ere, giza espezieak bizirauteko giltza biologikoa, abiapuntu bat baino ez da amatasunak pizten dituen iritzi trukeei begira jartzeko. Inon idatzita ez egonagatik ere, gizarteak sailkatu egiten baititu ama izateko modu eta ereduak, animaliak edo musika tresnak familiatan nola. Ama izan daiteke tradizionala, langilea, naturalista, utzia, axolakabea, estuegia, ona edo txarra. Ama ideal bat da, eta amatasuna prototipo perfektu horiei lotzen zaie. Eta, haurrak izan edo ez izan,

amatasuna bilaka daiteke emakumeen bizitzetako motxila pisutsuenetako bat: (z)ama.

Sufragismoaren aldarriek lortu zuten gizartea nolabait irauli, eta emakumeen lan munduko emantzipazioa eskuratzea. Ordea, feminismoa ez zen bigarren olatua heldu bitarte hasi, amatasunak izan litzakeen ertz kamutsei begira: borondatezko amatasuna, bortxazko antzutzak, antisorgailuak, amarena gainerako rolek bateratzea, eta gorputza, eta garuna. Finean, pertsonala politikoa dela berrestea.

Ordur geroztik, gaia barne-eztabaida eternal bilakatu da mugimendu feministaren nahiz feminismo akademikokoaren barruan, eta amatasuna



ikusi eta bizitzeko moduak dantzan ari dira hainbat teoriarekin.

Zergatik, baina? Kasu askotan, elkarren kontra talka egiten dutelako amatasun esperientziak eta nortasun feministak; iritzi teorikoek eta praktikek. Erditu aurretik zuten lanean jarraitu duten emakumeei zail suertatzen zaielako haurraren zaintza erdigunean jarri, eta hark eskatzen duen denbora eskaintzea. Edo, hori egitekotan, beren balizko independentziari uko egin beharko lioketelako.

Bide horretan, Elixabete Imazek dio, gaur egungo amek beren burua belaunaldi berri baten ordezkartzat ikusten dutela: amatasun eredu berriak bilatzen dihardutela, baina,

aldi berean, ez dutela erabat aldendu nahi beren amengandik jaso duten eredutik. «Emakumeak aldaketaren sustatzaile eta onuradun dira, eta batera sentitzen dituzte, aldarrikapena eta errua; autonomia nahia eta amaizateko gogoa». Autoreak argi dio «bateraezinak» direla ideala eta praktikan jarri nahi dutena, eta uste du arazo nagusia gizarte egituretan dagoela.

Eta horretan bat datoz Anita Botwin eta Marcela Lagarde ere, eta zaintzari jartzen diote fokua, berau komunitatearen arazotzat hartzeko beharraz ohartaraziz: «Gizartea da amatasundu behar dena, ez emakumeok». Bide horretan, bada amaren izate hutsa desagerraraztea defenda-

tzen duenik ere, Brigitte Vasallo, kasu: «Amatasun eredu jakin batzuk gartzak emakumea desagertzeara dakar. Ama eta pertsona izan nahi baldin baduzu, gizarteak zailtasun handiak jartzen dizkizu. Gainera, faltsua da *ama izan ala ez izan* eztabaida, eta hain justu horrek izan beharko luke amatasun feminista: amatasuna desokupatzek».

Ozeano zabal horretako korrontee-tan, hiru tanta baino ez dira Amaia Vaquero, Garbiñe Azaldegi eta Laida Agirre tolosarrak: ama bakarra, zaintza erdigunean jartzea erabaki duen ama eta haurrik ez izatea erabaki zuen emakumea. Eta asko dute esateko amatasunaren plazeraz eta zamaz, ia emakume guztiek bezalaxe.

«AMATASUNARI BURUZ EGIAK ESATEN DITUENAK KRITIKA ASKO JASOTZEN DITU»

Amaia Vaquero (Tolosa, 1975) duela 13 urte izan zen bikien ama, hormona bidezko tratamendu batekin. Oraindik orain, behin eta berriro errepikatu behar izaten du ama bakarra dela, eta aitarik ez dagoela eta, bide horretan, hezkuntzatik bezala etxetik eragin behar dela uste du.

Ama bakarra zara. Zerk bultzatu zintuen erabakia hartzera?

Arrazoi zehatzik ez nuen izan. Nik banekien ama izan nahi nuela, eta ez nuen bikoterik. Gogoan dut lagun batek nola esan zidan, artean 30 urte nituela, eta beharbada norbait aurkituko nuela. Eta, topatzen ez banuen, zer egin behar nuen, 40 urteak bete arte itxaron? Nik orduan izan nahi nuen ama, eta momentu egokiena iruditzen zitzaidan. Iradoki izan didate, ez ote zen errazagoa edonorekin oheratu eta haurdun geratzea. Baina nik ez daukat zertan horretan ibili beharrik; niretzat askoz ere garbiagoa da erabakia hartzea eta klinika batera jotzea. Inori kalterik ez diot egin, eta ez daukat inon gorde beharrik.

Erabakia zaila suertatu zitzaizun?

Zaila ez. Momentua iritsi zenean oso garbi neukan guztia eta, banekien, gero nire bizitzan pertsonaren bat azaltzen bazen, hark onartu egin beharko zuela nik bi haur izatea. Kezka handiagoa sortzen zidan, beharbada, nire etxean nire erabakia onartuko zuten moduak. Baina, egia esan, oso ondo hartu zuten guztia, eta gurasoek izugarri lagundu zidaten hastapenetan, sekulako kaosa bainuen esku artean. Haurrak bikiak ziren eta hiru orduz behin elikatu behar nituen. Gurasoak nire etxera etorri ziren bizitzera, eta txandak egiten genituen, haurrak zaintzeko; saiatzen ginen, bakoitzak sei orduz lo egiten. Inguruan horrelako laguntzarik ez baldin badaukazu, oso zaila da halako egoera bati aurre egitea; aterako litzateke, noski, baina oso-oso gogorra da.

Nolakoa izaten da haurdun geratu bitarteko prozesua?

Nirea, egia esan, esku-liburuetako ereduen parekoa izan zen. Quironera joan nintzen, eta prozesuari buruzko infor-



mazioa eskatu. Hormonak hartu behar dira, ohikoa baino obulu gehiago sortzeko. Gero, medikuek agindutako egunetan, klinikara bertaratu, eta semena txertatzen dizute; eta, hamabost egunera, emaitza iragartzen dizute. Nik azaroa inguruan ekin nion prozesuari, eta otsaila hasierarako haurdun nengoen; lehenengoan geratu nintzen haurdun.

Gogorrena hamabost eguneko itxaronaldia izan zen niretzat. Izan ere, haurdun ez geratzeak berriro hasieratik hastea zekarren. Fisikoki ez zen prozesu zaila, sabelean egunero indizio bat jartzea besterik ez zen. Psikologikoki, ordea, gogorragoa zen, emaitzarekin pentsatzen baituzu une oro.

Estereotipo asko al daude ama bakarren inguruan?

Bai, bai. Denok diogu normala dela guraso bakar izatea, baina, normala da, zenbait egoerarekin aurrez aurre jartzen zaren arte. Iaz, adibidez, haurrek iparraldera txangoa egin behar zuten, eta Udaltzaingoko baimena behar zuten, muga zeharkatu ahal izateko. Hara bertaratu nintzen, baimenaren bila nindoala azaldu nien, eta honakoa erantzun zidaten: «Senarrarekin etorri beharra daukazu». Eta nik: «Ez, ez daukat senarrik, ama bakarra naiz». Eta haiek, erantzun: «Beno, bananduta baldin bazaude ere, bere baimena behar duzu». Nik, berriz: «Ezetz, ama bakarra naizela». Udaltzainak: «Baina, nola?». Hirugarrenez: «Ez dagoe-la aitarik».

Azalpen horiek guztiak eman eta gero, familia liburua aurkeztu beharra daukazu eta, zuk esandakoa hala dela berresten dutenean, orduan, ez dakite zehazki zer gehiago egin behar duten eta, badaezpada ere, kopia konpultsatua



egin beharra dago. Osakidetzan ere, gauza bera pasatu izan zait; leku askotan hiru aldiz esan beharra daukazu ama bakarria zarela, eta ez dagoela aitarik.

Nik uste dut nire seme-alabek ez dutela aitaren figuraren beharrik izan, nolabait, nire aitak paper hori bete izan duelako. Behar batzuk, ordea, kanpotik sortzen dira, inguruan entzuten duten horretatik guztitik.

Familia nuklearraren eredu hori oso errotuta dago oraindik.

Bai, erabat. Esaten baduzu alarguna zarela, listo, ez dago beste azalpenik eman beharrik. Aldiz, eredu estandarretik ateratzen dena ulertzeko, puntu bat falta da oraindik.

Seme-alabak aipatu dituzu. Zure ustez, nola bizi dute guraso bat bakarrik izatea?

Etxean, daukazuna bakarrik ikusten duzu. Lagun guztiek dituzte aitak eta amak; batzuk bananduta, beste batzuk ez. Nik uste dut beraiek ez dutela bigarren guraso bat izateko beharrik sentitu, baina, azken finean, niri bi gurasok izan ditzaketen rolak hartzea dagokit, eta oso zaila da.

Gogoan dut behin semeak nola esan zidan: «Aita bat ba-neuka, orain futboleko jolastuko luke nirekin». Beharbada bai eta beharbada ez. Gainerako haurrek kontatu egingo dute nola jolastu duten aitarekin, baina, posible da aita izatea eta hark futboleko jolastu nahi ez izatea ere. Aita eredu ere estereotipatuta dago, neurri batean.

«Leku askotan hiru aldiz esan beharra daukazu ama bakarria zarela, eta ez dagoela aitarik»

Beraz, aitaren falta sumatuko zutela? Zenbait momentutan bai seguru baietz eta, batez ere, desberdin ez izateagatik eta hainbeste azalpen eman behar ez izateagatik.

Izan ere, nola ikusarazten zaio haur bati, badirela guraso bakarria duten haurrak? Beti biko ereduak landu izan dira eta, figura hori ez dagoenean, zailagoa da azaltzen, eta normala da.

Zer da zuretzat amatasuna?

Uste dut, nik bizi dudana amatasuna eta familia estandar bateko amak bizi duena berdinak direla. Zure haurrak dena dira: zure buruhaustea eta zure poza, dena. Alde onak eta txarrak ditu, guztiak bezala. Egia da, bakarrik zaudenean, gauza gehiago utzi behar dituzula alde batera; gauza asko ezin dituzu egin. Baina niri merezi dit.

Lehen eta orain desberdin ikusten al duzu?

Bai. Erabakia hartu baino lehen ez dakizu ama izatea zer den; zaila da gauza asko azaltzea, bizitzen duzun arte. Eta, horrez gain, bakoitzak desberdin bizi du. Esaterako, batzuek erditze ostearen oso oroitzapen politak izaten dituzte. Bada, zer nahi duzu esatea, nire oroitzapenak ez dira beste munduko ezer. Nire haurrak txikiak jaio ziren, inku-bagailuan egon ziren, eta beharbada horrek xarma kendu zion momentuari; baina ez nuen amek ustez eduki behar dugun senezko lotura izugarri hori sentitzen. Akaso nire izaeragatik ere bada.

Edo, idealizazio batengatik?

Bai. Dena oso polit marraztu digute, dena zoragarria izango dela sinestarazi, baina, gero, egunerokoan, gauzak ez dira horrela. Gainera, amatasunari buruzko egiak esaten dituenak kritika asko jasotzen ditu, bai baitirudi, ideal izaten jarraitu behar dugula.

Zuri gertatu zaizu?

Ez, baina nik ez dut amatasuna idealizazio horretatik bizi. Lehenengo hiru hilabeteetan, adibidez, nekea hain zen fisikoa, ez bainekien biberioia eman nien edo ez. Askori entzuten nien, haurrak gau osoan lo egiten zuelako kezkatuta esnatzen zirela. Kezkatuta? Ni ez behintzat! Lo egin dugula? Primeran, ondo geundenaren seinale. Eta, oinez ikasi zutenean, fisikoki leher-tuta bukatzen nuen eguna.

Super ama izateko beharra dute zenbait amak?

Bai. Amak denetara iritsi behar du, eta dena egin behar du, eta ezin da. Bide horretan, uste dut norberak jakin behar duela gauzak lehenesten. Nik lehen beste lan bat nuen, tentsio handikoa. Niretzat seme-alabak ziren lehentasuna, beraz, lanez aldatzea erabaki nuen. Zentzu horretan, ama bakarrok ez ditugu mila aukera. Bikote batean, aldiz, biak lanean ari baldin badira, beharbada bietako batek lanaldi murriztua hartzeko aukera dauka; gure kasuan ez, eta ez dago besterik, hori baita gure diru iturria. Beraz, egon ninteke egun osoa kexaka, edo errealtatea onartu, zortzi orduz lan egin, eta ahalik eta denbora gehien pasatu seme-alabekin.

«USTE DUT, FAMILIA ASKOTAN, INERTZIAZ IZATEN DITUZTELA HAURRAK»

Bizi erritmoa mantentzearen alde egin zuten, Garbiñe Azaldegik (Tolosa, 1967) eta bikoteak, eta seme-alabarik ez izatea erabaki zuten. Hautuak zenbait egoera deseroso sortu izan dizkiola dio, eta berekoitzat jo izan dutela, ama ez izatea erabakitzeagatik. Haurrik gabeko mundua «triste» litzatekeela dion arren, ez da bere erabakiaz damutzen.

Zer erabakitzen da, ama ez izatea ala ama izatea?

Nik ez izatea erabaki nuen. Ez dut sekula ama izateko grina izugarri hori sentitu baina, aldi berean, ez zitzaidan axola haurrak izatea ere. Egia esan, praktikotasunari begirako erabakia izan zen. Nik egun osoa etxetik kanpo pasatzen dut, eta senarrak garbi zeukan ez zuela haurrik izan nahi. Gainera, haurrak izango banitu neronek zaindu nahiko nituzke, eta nire lanak ez zidan aukera hori bermatzen. Egia esan, horrela oso ondo bizi naiz, eta ez naiz batere damutzen

Azalpenak eman beharra ekarri dizu horrek?

Gaur egun ez, baina hasieran bai. Baina hori, amatasunarekin eta gai guztiekin gertatzen da. Adin jakin batera iritsi eta bikoterik ez baldin badaukazu, horren inguruan galde-tuko dizute. Bikotea izanez gero, berriz, ezkontza izango da gaia. Eta, behin ezkontutakoan: «Zer, haurrak noizko?». Gizakiok beti galdera berberekin funtzionatzen dugu. Horrelakoetan, erantzun-zakar bat ematea ateratzen zaio bati, egia esan. Behin neurekoia nintzela esan zidaten, haurrik ez izateagatik. Senarraren ingurukoa zen, eta hasieran isilik geratu nintzen, baina, gero, erantzun egin nion; egia esan, oso harrituta geratu nintzen, eta iltzatura daukat.

Beste behin, senide bati erantzun nion, ezin nuela haurdun geratu; ez dakit hala den, noski. Barkamena eskatu zidan, oso larrituta. Askotan pentsatu gabe egiten ditugu galderak.

Parekoa zein egoeratan egon daitekeen jakin gabe.

Hori da. Beharbada pertsona horrek ama izan nahi du, saiatzen ari da, eta ez du lortzen, auskalo.

Senarrari baino, galdera zuri gehiagotan egin dizute-la uste duzu?

Ez dakit. Nik esango nuke, lagun artean daudenean, gizonetakoek ez dutela gurasotasuna hizpide izaten; emakume-



ok, beharbada, errazago hitz egiten dugu gai horiei buruz. Dena den, ez dut benetako presiorik sekula sentitu izan.

Aukera bat gehiago da, azken finean, ezta?

Bai, hori da. Guraso izatekotan, zalantzarik ez da gure bizi-moduko zerbait aldatu beharko genukeela.

Amatasuna sistema sostengatzeko gakoetako bat dela uste duzu?

Sistemak gaur egungo moduan iraun dezan, argi dago baietz. Gero eta haur gutxiago jaiotzen da, baina, belaunaldi berriak dira helduenei pentsioak ordaintzen dizkietanak. Mundu kapitalista batean bizi gara, eta uste dut hori irauli daitekeela. Nik neuk ez dakit nola egin beharko litzatekeen, baina izango dira gaian adituak. Tamalez, oso urrun ikusten dut aldaketa, horretarako gogoia behar dela. Eta, sistema ekonomikoek harago, egia da mundua triste litzatekeela haurrik gabe.

Zenbait korrontek uste dute, amatasuna esklabotza dela emakumeentzat; beste batzuek, aldiz, loturazko zaintza defendatzen dute. Guztiak ari dira feminis-motik.

Nik ez dut uste amatasuna esklabotza denik; norberak bilatu behar du oreka norbere bikotearekin. Posible da bakarrik egotea ere, baina, kasu horietan, pentsatzen dut ondo hausnartuta izango dutela gurasotasuna. Hala ere, inguruan ikusi izan dudana, iruditzen zait askotan ema-



GARBINEAZALDEGI

kumea bera bilakatzen dela haurren menpeko, eta ni harrituta geratzen naiz.

Zein zentzutan?

Adibidez, aisialdian. Gizonak parranda egiten du eta, hurrengo egunean, emakumea kontuz ibiltzen da gizona ez esnatzeko. Kontrara, ordea, emakumeek ustez parranda egin behar dutenean, kasu askotan, etxera goiz itzultzen dira, kezkatuta daudelako. Egia da ni ez naizela ama izan, sentimendu hori ez dudala izan, eta ezin dudala hori epaitu.

Zu gazteagoa zinenetik hona, gurasotasuna aldatu al da?

Bai eta ez. Lehen, emakumeek ardura guztia hartzen zuten: haurrak eta etxea. Baina, orain ere, kanpoan lan egin arren, eskolako gauzak, medikuarenera egin beharreko bisitak eta abarrak emakumeen ardura izaten dira kasu askotan. Eta, gainera, ez nuke esango horren erru guztia gizonenak dutenik.

Eredu sozialak eta erreferenteak izan litezke horren eragile?

Bai, baina –bikotea dagoen kasuetan– bikotearekin gauzak hitz egin eta guztia argi geratzen bada, eredu horrek aldatu egin beharko luke. Uste dut gizartea ari dela, pixkana, moldeetatik ateratzen, eta denbora da gakoa. Dena den, uste dut familia askotan inertziaz izaten dituztela haurrak,

«Inguruan ikusi izan dudanagatik, iruditzen zait askotan emakumea bera bilakatzen dela haurren menpeko, eta ni harrituta geratzen naiz»

eta niri oso lan zaila iruditzen zait haurrak hezteak. Oso azkar bizi gara, gauza asko egin behar ditugu, haurrak gauza asko egitera bultzatzen ditugu eta erotu egiten dira.

Nolabaiteko lehia ikusten duzu guraso izateko moduen artean?

Hein handi batean bai, horrelakoak baikara; beti aldame-nekoa zein ondo bizi den ikusten dugu, ezer jakin gabe. Egia esan, gurasotasunarena oso gai konplikatu iruditzen zait, alde askotatik begiratuta. Bikote harremana ere aldatu egiten dela iruditzen zait, eta amona-aitonak ere tartean sartzen dira, horrek bikotean sor ditzakeen ika-mikekin. Baina, tira, gaur egungo bizimoduarekin, bakoitzak ahal duena egiten du, eta inguruko erabakiak errespetatu egin behar ditugu.

«AMA BAKOITZAK ASKATASUNA IZAN BEHAR DU AMATASUNA BERE MODURA BIZITZEKO; EZ DAGO EREDU ON BAKAR BAT»

Haurraren beharrak erdigunean jarrita garatzen ari da, amatasuna, Laida Agirre (Tolosa, 1988). Erditu eta gero haurraren zaintzan aritu zen, hilabetetan, eta feminismotik defendatzen du eredu hori, zaintza kolektibizatze beharra azpimarratuz.

Nola hartu zenuen ama izateko erabakia?

Ez dakit zuzena ote den, esatea, beti izan nahi izan dudala ama. Baina bai, buruan beti izan dut noizbait ama izateko ideia. Baldintza egokiak sortu zitzaizkigunean, aurrera egitea erabaki genuen.

Zalantzarik izan zenuen bidean?

Ez genekien gai izango ote ginen, guk nahi bezala, eta pentsatzen genuen bezala, eta sentitzen genuen bezala haurra hezteko.

Aurrez hausnartuta zeneukaten nahi zenutena.

Gehienbat, nahi ez genuena. Gero, amatasuna bizitzen zozazen heinean, egunero-egunero sortzen dira gauza berriak, eta horri ahal bezala aurre egiten diozu. Baina, bai, gauzak nahiko argi geneuzkan. Eta, geneuzkan diot, nire uestez oso garrantzitsua delako erabaki horiek bikotean hartzea.

Zer erabaki zenuten aurrez?

Denbora hartzea eta haurra guk hezteko aukera izatea. Eta haurra parekidetasun eredutan hezte ere bai, nahiz eta gizarte honetan oso zaila izan. Oraindik ere, sekulako mina ematen dit, gure haurrak neska edo mutila den oraindik ez dakienean, kalean «zu mutil handia zara» esateak. Irakasle izanda, nire lanak hainbat kasu ezagutzeko aukera eskaintzen dit, eta lanketa berezi bat egin nahi nuen haurrarekin. Hori bai, gero nola lortu horra iristea? Ahal den moduan. Baina nik informatzeari garrantzia ematen diot. Izan ere, beti esan izan da, umeak beti jaio izan direla, eta guztiak hazi direla. Eta bai, hazi denak hazten dira, baina hezi, bakoitzak bere modura hezten ditu.

Behin erditu eta gero, zaintza erdigunean jarri eta eszedentzia hartzea erabaki zenuen, hainbat hilabetez. Zeure burua feministatzat izanda, erabaki horrek kontraesanik sortu dizu ala ez?

Argi neukan hori egin behar nuela, argi neukalako haurrak hori behar zuela. Emakumeak lan munduan sartu dira, eta aurrerapauso ikaragarria izan da, baina, aldi berean, irudi-



tzen zait emakumea edo gizakia ez direla errespetatzen, alde horretatik. Batetik, konturatu naiz amatasun baimenak eta abarrak eredu matxista baten barruan ezarritakoak direla. Nik, ditudan lan baldintzengatik eta daukadan inguruagatik, eszedentzia hori hartu ahal izan dut, baina deneke ez dute zorte hori. Eta, iruditzen zaigu, lau hilabete baimenarekin eta edoskitze baimenarekin, emakume guztiok gogoia izan behar dugula lanera itzultzeko. Hala egin nahi duenak, oso ondo, itzul dadila lanera. Ordea, ez da kontuan hartzen haurrari zaintza hori eskaini nahi dionaren aukera; kolokan jartzen dira haurraren beharrak. Eta, ez dut esango denei hala gertatzen zaienik, baina, ezagutzen ditudan ama gehienak, erditu eta lau hilabetera lanera itzuli direnean, negarrez joan izan dira. Beraz, bai, feminismoak aurrerapausoak eman ditu emakumea lan munduan sartzeko, baina, ezarri den eredua, berriz ere, eredu matxista bat da.

Horren harira, zer diozu aitatasun baimenen inguruko eztabaidaz?

Ondo dago aitatasun baimenei buelta bat ematea, baina ez zait lehentasuna iruditzen. Izan ere, bitxia da: hainbat ama talde daude amatasun baimenak luzatzearen alde, baina nik ez dut aitatasun baimena luzatzearen aldeko aita talderik ezagutzen. Beraz, inork bultzatu gabeko baimen bat luzatu dute eta, bitartean, amatasun baimena bere horretan utzi dute. Petatxu bat jarri dute, eredu matxista indartzen jarraituz. Zeren, pediatrek nahiz Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen dute, haurrak sei hilabete bete bi-

LAIDAAGIRRE

tarte bularra ematea. Baina, hain justu, oztopoak daude hori egin ahal izateko. Balantza horretan, beraz, non gertatzen da berez hain ona den hori?

Beraz, amak haurrarekin duen lotura eta aitak duena, desberdinak dira.

Batez ere, lehen bi urteetan. Haurdunalditik hasita, bidea amek bakarrik egiten dute. Kasu gehienetan, ordutegiagatik, bikoteek ezin izaten dute Osakidetza antolatutako erditze aurreko ikas-taroetara joan. Eta, orduan, haurdun dagoena informazioz betetzen hasten da, bidaia horretan sartuta dago, eta bikotea ez. Eta hori bikotean prestatu nahi duenak, bere kabuz egin beharra dauka. Nik argi daukat bikoteak sortutako haurdunaldia biren lana dela, eta baita erditzea eta erditze ostea ere. Bakoitzak bere modura eta bere lanketarekin, baina elkarrekin egin behar da.

Epaituta sentitu izan zara inoiz, hori guztia defendatzeagatik?

Batez ere, nire erabakiak hartu ditudan bezala hartzeagatik. Hori baita bestea: behin ama izaten zarenean, badirudi mundura ateratzen zarela, eta mundu guztiak epai zaitza-keela eta zerbait esan diezazukeela. Aukera izan dut nire amatasuna ia nahi izan dudana bezala bizitzeko, baina, gizarte honek ez du hori ondo ikusten; askorentzat atzerapauso bat da. Jende askok ez du ulertzen emakumeak lan

«Feminismoak aurrerapausoak eman ditu emakumea lan munduan sartzeko, baina, ezarri den eredua, berriz ere, eredu matxista bat da»

munduan sartu eta, orain, berriz ere, haurrarekin etxean geratzea. Esan izan didate nire ibilbide profesionala alde batera uzten ari nintzela, karga horretatik askatu behar nuela edo haurrari kalte egiten niola berarekin egoteagatik. Baina ni nire erabaki propioz geratu naiz etxean, hala sentitu dudalako eta hala iruditu zaidalako. Dena den, kontrara ere gertatzen da, eta iritzi onak ere jaso izan ditut, noski.

Beharbada, gure arteko kritiketan aritu beharrean, gehiago lagundu beharko genuke elkar. Baina ez dago horretarako sarerik eta, beraz, bakoitzak ahal duena egiten du, bakarrik, eta gizarte indibidualista batean bizi garen, amatasuna ere modu nahiko indibidualean bizitzen ari gara.

Beste zenbait korronteren artean, historian barrena, hainbat autore feministak esklabotzatza jo izan dute amatasuna. Zaintzari lotutako amatasuna nola izan daiteke feminista?

Ama bakoitzak askatasuna izan behar du amatasuna bere modura bizitzeko; ez dago eredu on bakar bat. Norberak gustura egon behar du hartutako erabakiarekin eta, askok esanagatik haurrarekin etxean egotea ona dela, lanera itzuli nahi duen amak askatasuna izan behar du lanera bueltatzeko.

Uste dut erdigunean haurrak jartzeko hautua ulertu behar dela. Egia da, lehenengo hilabetee-tan, haurrak amarekin lotura estuagoa duela, baina, denbora-tarte horretan guztian, ama horrek ere behar du sostengua; bikotea daukazu kasuan, bikotea, eta ama bakarra zarenean, beste norbait. Zaintza, beraz, gizartearena dela uste dut, zerbait kolektiboa. Haurrak etorkizuneko gizartea izango dira, eta guk ez badiegu zaintza hori eskaintzen, zer izango dugu ondoren? Denok behar dugu zaintza bat, bere ezaugarriekin, eta hori zergatik da esklabotza? Haurra amak, aitak edo familiak zaintzen ez badu, beste norbaitek zainduko du. Eta, beste norbait horrena ere esklabotza al da?

Hainbat emakume liberatzen dira beren gurasoak zaintzeko eta, adinekoen zaintzan aritzen diren gehienak ere emakumeak dira.

Bai, hori da gakoa, emakumea dela beti zaintzari lotuta dagoena. Baina, behar hori gizartera zabalduko balitz, ezta baida hau ez litzateke hain bizirik egongo.

«INOR BAINO GEHIAGO ARRISKATZEN DEN BIKOTEA GARA»»

20

Segurako txapelketa hirugarrenez irabazi eta hilabetera, Xabier Artolak eta Idoia Besadak gaur zortzi utzi zuten, Irurako udaletxean, Nestor Basterretxeak Euskal Herriko dantza txapelketarako egindako garaikurra.

Itzea Urkizu Arsuaga

Dantza sueltoaren historiako zerrendan beren izena idatzi dute, aurtan, Xabier Artolak (Irura, 1996) eta Idoia Besadak (Pasaia, 1993). Elkarrekin dantzari hasi zirenean pentsatu ere egingo ez zuten arren, hiru aldiz jarraian irabazi dute Segurako txapelketa, eta Nestor Basterretxeak diseinaturiko azken garaikurra eskuratu dute. Txapelketen munduaz harago, euskal dantzaz, estereotipoen eta kulturaz aritu dira.

Denbora pixka bat pasatu da Segurako txapelketatik eta, distantzi horretatik, nola ikusten duzue lorpena?

Idoia Besada: Sinesten dugu, baina oraindik ez, aldi berean. Hirugarren garaipen hori lortzeko izan dugun presioa desberdina izan da: helburu hori geneukan, eta lortu dugu. Eta, hain justu, horregatik, ez duzu sinesten gorenera iritsi zarenik.

Xabi Artola: Denborarekin etorri den helburu bat da, hasiera batean geure buruari proposatu ez geniona. Horren zain geunden, entsegu asko eginez eta, bat-batean, irabazi egin dugu. Baina gehiago da lorpen pertsonal bat, beste ezer baino. Ikusten duzu, egindako lan guztiak merezi izan duela, sari bat izan duela.

Urtebete barru, beharbada, lorpena errekonozituko diozue zeuen buruari.

X.A.: Posible da, bai. Seguran bertan ere esan nuen: urte asko ziren halakorik lortu gabe eta, orduan, badira goren-gorenean dauden bikoteak, Azpitarte eta Parrondo anai-arrebak, adibidez. Eta, bat-batean, gu biok pare horretan gaude, ustez; haiek lortu zutena lortu dugu behintzat. Horiek bikote historikoak dira eta guk, Xabik eta Idoiak, horra iritsi eta gauza bera lortu dugu.

I.B.: Nik gogoan dut txikitan txapelketa guztietara nola joaten nintzen, ahizpa txapelketetan aritzen zelako; garai hartan, aizpitartetarrek nire idoloak ziren. Orain, nik ez dut neure burua horien parean ikusten.

Zenbait umerentzat idolo izango zara, beharbada.



ITZEA URKIZU ARSUAGA

X.A.: Niretzat ere hala zen berarekin bikote moduan hasi baino lehen, pentsa.

I.B.: [Barreak]

X.A.: Egia da, nire ustez Idoia erreferentzia bat da, duen dantzakeragatik: oso garbia da, oso fina da eta, tekniko-ki, nik ez dut bera baino hobe den inor ikusten.

I.B.: Beno, beti dago akatsen bat, eta beti dago zer hobetua. Uste dut adituak garela geure alde txarrei begiratzeko, eta oso kritikoak gara geure buruarekin.

Akaso horregatik findu duzue hainbeste zuen dantzakera?

X.A.: Bai, argi dago baietz. Bideoak grabatu, ikusi eta hobetu beharrekoak segituan identifikatzen ditu norberak.

I.B.: Hala ere, asko hobetu izanagatik, ez dago, Xabik bezala, hiru-lau urtean halako helburu bat lortu duen inor. Zeretik hasi ginen urtarrila inguruan eta, lehen txapelketara iritsi, eta irabazi egin genuen. Orain, atzera begiratu-

ta, niri sekulakoa iruditzen zait. Eta, hor, ikusten da lana, gogoia eta sekulako gaitasuna daudela. Izugarria da lortu duzuna, eta hori beti esango dut.

X.A.: Bai, baina lortu dudana Idoia Besadarekin lortu dut, ez edozeinekin.

Ia lau urteren ondoren, elkarri lo-reak botatzen ari zarete. Denbora horretan guztian, aldatu al da bikotea?

I.B.: Hasieran, nik nekiena irakatsi nion Xabiri; nire estiloa. Hori izan zen abiapuntua, baina, geroztik, saltoak txertatu ditugu gure fandango eta arin-arinean eta, uste dut, hori dela gure indargunea. Indar handia dugu, eta salto egiteko gaitasuna.

X.A.: Bai, konfiantza hartu dugun heinean, pausoak eraldatzen joan dira. Gorputzaren goialdea ere asko landu dut, nik bereziki; Segurako lehenengo urtetik bigarrenera alde handia nabaritu nuen. Eta jauziei begira lan handia egin dugu. Dena den, iruditzen zait

ez dugula hori bakarrik: uste dut beste inor baino gehiago arriskatzen den bikotea garela. Ondo ateratzen denean, zoragarri; kontrara, ordea, akats bat egiten baldin badugu, oso garbi ikusten da. Azken finean, hau guztia ez da lortzen, arriskatu gabe.

I.B.: Xabik besoak aipatu ditu eta, bai, entseguetan landu daitezke besoak. Gero, ordea, hara heldutakoan, bukatzeko indarra behar duzunez, buruak hanketara bidaltzen du indarra, inkontzienteki. Askotan, Segurako bideoak-eta ikusten ditudanean, akats hori ikusten dut nabarmenen: gorputzaren goiko zatia gehiago mugitzeko beharra.

X.A.: Hori gainerako bikoteek egiten duten proposamenagatik ere badela uste dut; lehen ez ziren besoak hainbeste mugitzen. Orain, berriz, badirudi hori dela joera. Guk ez dugu bide hori hartu, beharbada gehiago eutsi nahi izan diogu bion irudiari.

I.B.: Eta zehaztasunari. Dantzatzen dugunean, elkarri hankak bilatzera joaten gara, altuera bera harrapatzera, eta horretan asko laguntzen digu biok altuera bertsukoak izateak; bestela askoz ere zailagoa litzateke.

Batek esperientzia izateak eta beste hasiberria izateak, lagundu diezue oreka lortzeko?

X.A.: Txapelketen munduan Idoia jende guztiak ezagutzen du, onerako eta txarrerako, baina ni ez, eta hori positiboa dela uste dut.

I.B.: Xabirekin dantzan hasi aurretik, nik beldur bakarra nuen: txapelketak txapelketa bakarrik izatea, eta lehen postua helburu bakar izatea. Baina, Xabirekin dantza eginez, dantzan gozatzea lortu dut. Horrekin ez dut esan nahi lehen gozatzen ez nuenik. Baina Xabik asko lagundu dit horri buelta ematen, eta beste ikuspegi bat izaten; azken lau urteok desberdinak izan dira niretzat. Irabazten ez badugu ez da ezer gertatzen eta, garaipena lortuz gero, noski, oso gustura hartzen da.

X.A.: Adinak ere izango du zerikusirik, guztia erlatibizatzeke.

I.B.: Bai, adinarekin tenplea eta dedikazioa irabazi ditugu. Ez dagoen tokitik ateratzen dugu denbora.


Hain zaila zirudien hori lortu duzue: hiru jarraian. Eta orain, zer?

I.B.: Oraindik ez dugu ezer erabaki. Txapelketa amaitzea benetako bizi-tzara bueltatzea izan da, norbere lanera eta norbere ikasketetara, eta ez dugu astirik izan hitz egiteko ere.

X.A.: Nik neuk oso argi daukat dantza taldean jarraituko dudala, eta Idoiarekin gustura dantzatuko dudala; sueltoan aritzeko taldeko norbait aukeratu beharko banu, hori Idoia litzateke, ordu asko pasatu ditugulako elkarrekin. Baina, hortik aurrera, bikotearekin ez dakit zer gertatuko den. Momentuz, beste lehentasun batzuetara bideratu nahi dut orain bizitza; ikasketak bukatzea eta, ahal bada, lanpostu bat lortzera.

Txapelketak lehia dira, finean.

I.B.: Bai. Beti izaten da besteek beren lana oso ondo egin eta norbera baxuago aritzearen beldurra; bai, behintzat, txapelketa garrantzitsuenetan. Baina hori edozein kiroletan edo lehiatan gertatzen dela esango nuke.



Dantza txapelketetan, ordea, pertsonak epaitzen dute zuen lana. Nola daramazue hori?

X.A.: Argi dago subjektibotasun horretan gako handienetako bat dagoela. Eta, ahobizarririk gabe esango dut: nire ustez, zenbait epailek ez dute nahikoa gaitasun postu horretan egoteko. Epaile batzuk ez dute ikusten ikusi behar dena, edo azken 40 urtean ez dira dantzan aritu. Txapelketetan epaile lanetan aritzen diren gazteen artean, berriz, zein aritu da sueltoan buru-belarri? Nerea Vesgaren izena bakarrik bururatzen zait. Noski, hau nire iritzia da, eta beharbada jendeari ez zaio ondo irudituko, baina uste dut norbaitek zerbait ona den edo ez ebaluatzeke, pertsona horrek puntu horretara iritsi behar izan duela noizbait. Alegia, epaileek dantzariak bezainbesteko ezagutza garatuta izan beharko luketela, dantza sueltoan. *Gipuzkoanoko* dantzen txapelketetan, kontrara, egin beharrekoak arautuago daude sueltoan baino. Sueltoan ia ez dago araurik, irizpide batzuk baino ez daude, eta askok hutsuneak estilo edo dantzakere-

kin azaltzen dituzte; baina dena ez da estilo kontua.

Zer da, orduan, epaimahaiak baloratzen duena?

I.B.: Ni gatzetxoek txapelketetan epaile lanetan aritzen naiz, eta lau atal daude: zailtasuna, pausoen zehaztasunei begiratzen dien atal bakarra; gorputzaren goialdeko mugimendua; erritmoa eta alaitasuna, dantzariak oholtzatik transmititzen dutena. Nire ustez, alaitasuna eta gorputzaren goialdeko mugimendua oso lotuta daude. Horrek, ordea, ez du esan nahi besoak mugitu behar direnik. Lehen gerria eta ipurdia mugitzen zuten dantzan, eta orain besoak mugitzeko joera handia dago. Baina, esandakoa: arautu gabeko esparru bat da dantza sueltoarena.

X.A.: Eta, akatsek, nola eragiten dute bada?

I.B.: Epaile bakoitzaren arabera da hori. Berez, lau atal horietako puntuak normal eman behar dira, eta akatsek beste atal bat osatzen dute; amaieran, akatsetan pilatutakoa beste puntuazioari kendu behar zaio. Dena den, ez



ITZEA URKIZU ARSUAGA

«Dantza profesionala oso mundu estereotipatua da. (...) Dantzari oso onak geratu izan dira lehen lerroetatik kanpo, eta argi dago konpainiek emakume eredu argi bat bilatzen dutela»

dakit nora goazen, txapelketen moldea ere aldatzera baitoa.

Nola?

X.A.: Batetik, dantzek sei pauso izango dituzte, gaur egungo zortzi pausoen aldean. Horrez gain, beste bi proba egin beharko ditu bikote bakoitzak: fandango bi pauso, gorputzaren goialdeko mugimendua baloratzeko, eta arin-arineko bi pauso baldosa baten gainean. Garai bateko graziarekin dantza egiteko ohitura berreskuratu nahi dute.

Hainbat zaleren arabera, txapelketek dantzakera homogeneousatu dute. Hori horrela baldin bada, ez al da kontraesana txapelketek eurek plazako dantzakera berreskuratu nahi izatea?

I.B.: Oso kontraesankorra da, baina, egiazki, ez dakigu zein den aldaketa honen helburua ere. Dantzari guztiok harrituta gaudela uste dut.

X.A.: Garai bateko grazia hori berreskuratu nahi dute, baina errealitatea oso bestelakoa da. Batetik, txapelketak dira: oholztan zerbait dago jokoan eta, ondorioz, zailagoa da alaitasuna trans-

mititzea. Eta, bestalde, txapelketek, onerako eta txarrerako, garapen bat izan dute; txapelketek eta, oro har, euskal dantzek.

Hori txapelketek ekarri dutela uste duzu?

X.A.: Hein handi batean bai, txapelketek beste zenbait dantza estilotako eragina jaso izan dutelako. Euskal dantzak herri bakoitzeko festetako ekitaldiak ziren eta, gerora, dantza taldeak homogeneousatu egin dira, eta talde jakin batzuek eragin nabarmena izan dute eraldatze horretan. Aldaketa hori ez da txapelketek bakarrik sortua izan.

Txapelketek eragin dute dantzariak horretan erabat zentratu, eta beren proposamena gero eta hobe izan dadin lanean jarraitzea. Horregatik, orain hanka askoz ere gehiago altxatzen da, buelta bakarra eman beharrean batzuk bi ematen dituzte, eta abar. Gorputza mugaraino eta dantza perfektioraino eramatera iritsi gara.

Dena den, uste dut badirela dantzakera propio horri eusten dioten taldeak, Tolosan edo Legazpin, adibidez.

Biok txikitatik ari zarete euskal

dantzetan. Zein etorkizun ikusten diozue?

I.B.: Kanpo korronteekin batera garatzen ari da, eta aldaketak izango dira, ziur. Gero eta gutxiago dira tradizioa mantentzen duten taldeak, eta ez dakit talde horiekin zer gertatuko den. Iruditzen zait, antzeko zerbait gertatuko dela dantza taldeetan erabiltzen diren jantziekin ere; gaur egun, gero eta emanaldi gehiago ikus daitezke, bere garaian Aukeran dantza konpainiak proposatu zuen janzkera soinean dutela. Noski, Aukeran konpainia bat da, baina hori zabaldu egin da, baita dantza taldeetara ere. Hala ere, nik beti esango dut, oso gustuko ditudala dantza konpainiak eta beti ikusten ditudala haien emanaldiak.

Gakoa, akaso, konpainiaren eta dantza taldearen arteko desberdintasuna da? Alegia, kultur tradizio baten gainean sorkuntza eta artea garatzea, edo sorkuntza hori tradizioa balitz bezala erreproduzitzea?

I.B.: Bai. Euskal Herriko konpainia



Artola eta Besadari harrera egin zieten duela astebete, Iruran. Plazan dantza egin zuten, eta Nestor Basterretxearen eskultura betirako geratuko da Irurako udaletxean. JON MIRANDA

handiek sortzen dutenaren atzean lanketa eta mamitze handia dago.

Nolabaiteko abangoardia bat ere beharrezkoa da, beharbada, euskal dantzak iraun dezan.

I.B.: Bai, argi dago tradizioaren moldeek ezin dutela betiko funtzionatu edo saldu. Baina jakin egin behar dugu zeintzuk diren gure erroak, eta horiek mantendu egin behar ditugu. Gainerakoan, garapenaren garapenaz, iritsiko da benetako dantza zein zen ez dakigun momentu bat. Edo jada gertatzen da. Iztueta irakurriz gero, gaur egungo *Gipuzkoanoko* dantzek ez daukate zerikusirik berak deskribatzen duenarekin: guztia baloiteria leratu da.

X.A.: Uste dut euskal dantzak beti iraungo duela; osasun ona ikusten diot. Baina, horrez gain, uste dut oso garrantzitsua dela norberak bere identitatea argi izatea. Alegia, guk, Udaberri dantza taldean, badakigu ez dugula eskainiko konpainia batek egiten duena; badakigu zer egiten dugun. Gure nortasuna hori da, eta gu ondare bat gara. Udaberri dantza taldeak egiten duena dantzen ondarearen zati da, eta beste dantza talde batek egiten duena beste zati bat izango da ondare horretan, noski. Uste dut horrela uler-tu behar dugula. Eta, gure lana izango da, euskal dantzen transmisioan dantza horiek mantentzea.

Hizkuntzarekin gertatzen den bezala, uste duzue dantzen tradi-

zioa eraberritzearen adar bat lotuta dagoela konplexuekin? Agurra bizikleta gaineen, Shakirarekin euskal dantzak,...

I.B.: Ez dakit. Nik uste dut berritze nahia dela, eta sekula ikusi gabeko gauzak etengabe sortzeko gogoia. Eta, horren aurrean, iritziak eta iritziak daude.

X.A.: Bere garaian Aukerane hartu zuen bideak arrakasta handia izan zuen, eta horrek olatu moduko bat ekarri zuen: talde ia denak berritzen hasi ziren. Eta, noski, berritze horrek ere baditu mugak eta, momentu jakin batean oso zaila da aurrez egin gabeko zerbait sortzea. Eraldatze hori gertatu da, eta oso zaila da proposamen erabat desberdin bat egitea. Kukai dantza konpainiak, adibidez, *Oskara* proposatu zuen, eta dantza garaikidera erabat bideratu zuen proposamena. Ordea, lan hori egin beharrezkoa da; eraberritze horretan aurrera egin behar da.

Zerbait bizirik dagoenaren seinale, ezta?

X.A.: Hori da. Horregatik, iruditzen zait, jendea itzuliko dela sustraietara, edo jendeak ez dituela ahaztuko. Inork ez du gustuko erromeria batean dantzatu gabe geratzea, eta jende asko etortzen da gure helduen ikastaroetara, inbidia sanoaz, fandangoa eta arinarina ikasi nahi dituelako. Gure ohituraren parte da, eta lehengo erromeriak eta oraingoak ez dira berdinak, baina funtsa bera da.

Dantzarekin zerikusirik ez duen esparruetan ari zarete lanean edo ikasten. Gazteagok zinetenean inoiz pentsatu zenuten dantzan modu profesionalean aritzen saiatzea?

X.A.: Niri burutik pasa izan zait, Ku-kaiko formakuntzetan aritu ginenean-eta. Baina gerora oinak lurrean jarri ditut, eta orain ez nuke unibertsitatean ikasitako guztia alde batera utzi nahi, dantzan erabat aritzeko. Dantzari bizitzak muga bat du, gainera.

I.B.: Gorputzak dauka muga. Eta, horrez gain, dantzari ordu eta urte asko eskaintzen ari gara honezkero.

X.A.: Bai, baina beste helburu batekin. Ideala litzateke, ikasketekin lotutako lana eta dantza uztartu ahal izatea. Baina, gaur egun, dantzari ezin dute aukeratu: konpainiako jarduna lan bilakatu, baliabide ekonomikoak daudenean edo, bestela, konpainia batean aritu, baina beste lan bat izanda.

I.B.: Horrez gain, gizonak aukera handiagoa izaten dute bide profesionalari heltzeko.

X.A.: Gainera, oso mundu estereotipatua dela iruditzen zait.

Edertasun kanonek zeresan handia dute dantza konpainietan?

I.B.: Noski baietz. Dantzari oso-oso onak geratu izan dira lehen lerroetatik kanpo, eta argi dago konpainiek emakume dantzari eredu bat bilatzen dutela, oro har: hanka finak eta gorputz fina.

X.A.: Eta altuak, eta gerri fina dute-nak. Gizonezkoen kasuan, eredu garbi hori ez da hain nabarmena, dantzari gutxiago daudelako.

I.B.: Gizonezkoen kasuan potentzia lehenesten da, nire ustez; emakumeen kasuan, dantzas gain, itxura fisiko jakin bat.

Diozu enaren arabera, beraz, konpainia batean sartzeko antzeko gaitasunak dituzte bi emakume baldin badaude, kanon estetiko horiek betetzen dituen sartuko da?

Biak: Bai, bai.

X.A.: Zalantzarik gabe.

I.B.: Posible da ballet konpainietatik datorren zerbait izatea. Estereotipo hori betetzen zuten neskak aukeratzeko zitu-zen, eta horrek joera bat sortu du dantzen munduan, oro har, baita euskal dantzan ere.

Agenda

OSTIRALA AZAROAK 30

ANOETA

GAZTETXEAREN XX. URTEMUGA

19:00. *Euskararen zapalkuntzaren inguruan hausnartzen, gaztetxean.*

MUSIKA

22:30. Soma Cult eta McOnak taldearen kontzertuak izango dira, gaztetxean.

ALEGIA

MUSIKA

22:30. Revolta Permanent + Bourbon Kings taldeek kontzertua eskainiko dute Alegiako Gaztetxean.

AMASA-VILLABONA

DOKUMENTALA

19:00. Begoña Atin eta Maite Ibañezek egindako *Mujeres en construcción* dokumentala eskainiko dute, Gurean. Amaitutakoan solasaldia, egileekin.

ONDDO GAZTE ASANBLADAREN URTEURRENA

17:30. Haurrentzako film proiektzioa.

Ondoren. Txokolate jatea.

BERROBI

SAN ANDRES FESTAK

13:00. Solastoki Jubilatu Elkarteko bazkide-hildakoen omenezko meza.

13:30. Tremes-ogia banatuko da doan.

14:00. Erretirodunen bazkaria Solastoki Jubilatuen tabernan. Jarraian. Bingoa.

16:10. Berrobi kantari: Berrobiko Eskolak sustatuta, hileko azken ostiraletan, kalera kantari ateratzeko herri-ekimena.

16:30. Jaien hasiera.

16:45. Buruhandiak.

17:15. Txokolate beroa.

19:30. Matraka elektrotxarangaren eskutik, pintxo-pote herrikoia.

21:30. Oilasko-errea Begi-Urdin Gaztegunean.

00:00. Azken Sustraiak taldearen kontzertua, Gaztegunean.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

16:30. Haur merienda, Katillutxulon.

17:30. *Abezedario titirjario* liburu aurkezpena eta ipuin kontaketa Juan Kruz Igerabiderekin.

21:00. Afaría Katillutxulon Joxe Ramon eta Urki Galaragatarrek txiste kontalariekin.

Azaroak 30

Elkarrizketa elebidunetan, solaskideetako batek euskaraz eta besteak erdaraz egin dezake, bakoitzak bere aukera egiten du. Posible da. Eutsi euskarari!

TOLOSA

TITIRIJAI

17:30/19:30/21:30. *Girovago Rondella*, Euskal Herria plazan.

18:30/20:30. *Antipodi*, Euskal Herria plazan

22:00. *Gaudeamus*, Topic-en. Helduentzat.

23:00-01:00. Topic-eko anbiguan, solasaldia, Jaime Santosekin.

TOLOSALDEA

AZKEN OSTIRALA

Hileko azken ostiral guztietan bezala euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzeak egingo dira. Ibarran, ziega baten benetako erreplika bat egongo da herritarrek ikus dezaten.

LARUNBATA ABENDUAK 1

ANOETA

MAHAIINGURUA

17:00. *Bulkada berrien garaia da! Gazteok 40 urtez antolakuntzan eta borrokan, 40 urte hauetan antolakunde ezberdinetan parte hartu duten lau gazterekin izango da mahaiingurua, gaztetxean.*

AMASA-VILLABONA

ONDDO GAZTE ASANBLADAREN URTEURRENA

09:30. Mendi irteera.

Ondoren. Bazkaria.

23:00. Euskaraokea.

ASTEASU

LIBURU AURKEZPENA

Joxean Agirrek idatzi duen Eleuterio Tapia trikitilariaren biografia jasotzen duen

liburua aurkeztuko dute, Euskal Herriko Trikitixa Elkartek eta Asteasuko Udalak.

11:00. Iturri-ondo tabernan hainbat trikitilari elkartu eta herrian zehar kalejira.

12:00. Udaletxean aurkezpena: Pili Legarra, Asteasuko alkate-anderea; Joxean Agirre, liburuaren egilea; Juan Tapia, Eleuterio Tapiaren iloba eta Agurtzane Elustondo, EHTEko lehendakaria.

BERROBI

SAN ANDRES FESTAK

11:00. Trakamatraka ikuskizun musikala: kontzertu didaktikoa musika tresna birziklatuekin.

14:00. Babarrun jatea Begi-Urdin Gaztegunean.

16:30. Mikel Bermejoren bakarrikzeta Begi-Urdin Gaztegunean.

17:30. Aurpegi margotzea tailerra, gaztegunean.

17:30. Eskoba, puntu eta mus partidak Solastoki Jubilatu Elkarteen tabernan, adin guztietako herritarrentzat.

18:30. Txokolate beroa txurroekin, karta-jokoetako partaide guztientzat.

21:00. Zahagi ardoa.

23:00. DJ Aremikel, gaztegunean.

BERASTEGI

GAZTAINA BAZKARI HERRIKOIA

12:30. Triki poteoa herrian zehar.

14:00. Bazkari herrikoia.

Ondoren. bertso saioa Iñigo Gorostarzu eta Aitor Mendiluzeren eskutik.

Iluntzean. Luntxa eta jarraian DJ Elepunto.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

16:15. Mus txapelketa, Katillutxulo elkartean.

18:00. Patata tortilla lehiaketa.

18:00-20:00. Egutegiako argazki aukeraketa.

20:00. Niko Etxart eta Robert Larrandabururen kontzertua, elizan.

TOLOSA

TITIRIJAI

12:30. *Colgando de un hilo*, Plaza Berrian.

17:00. *Años luz*, Leidor aretoan.

17:30/19:30/21:30. *Girovago Rondella*, Euskal Herria plazan.

18:00. *La ou vont danser le betes*, Zerkausian.

18:30. *Idi et ailleurs*, Topic-en.

18:30/20:30. *Antipodi*, Euskal Herria plazan.

Agenda

DANTZA

18:00. Tolosalsa, hilean behingo dantza latindar zaleen topaketa izango da, kultur etxean. Sarrera doan.

AIZORRATZELKARTEAREN FESTA

50 urte bete ditu Haur Jaialdiak.

19:00. Poteoa.

20:30. Eskertza ekitaldia, elkartean.

21:00. Afaria.

IBARRA

BABARRUN FESTA HERRIKOIA

09:00–13:00. Ibarako IX. Babarrun

Lehiaketa Herrikoia.

12:00. Alegiako txarangarekin festa-giro eta Euskaraldiarekin mintzapraktika.

14:30. Babarrun jatea.

16:30. Sari banaketak.

17:00. Euskaraldia: galdeteka jolasa.

18:30. Kantu bira herrian zehar.

20:30. Afari merienda gaztetxean.

Ondoren. Dantza festa gaztetxean.

ZIZURKIL

MUSIKA

20:00. Demode Quartet taldeak

kontzertua eskainiko du, plazako estalpean.

IGANDEA ABENDUAK 2

ALEGIA

MENDI IRTEERA

09:00. Tonto kalean elkartu eta Aldabara autoz igoko dira. Santamañarako bidea auzingo dute. Bertan hamaiketakoa egin eta autobusez egingo dute Alegiarako bidea.

AMEZKETA

EKITALDIA

12:00. Joxe Etxeberria Sagastume Beltzaren heriotzaren 45. urteurrena dela eta izango da ekitaldia, plazan.

BERROBI

SAN ANDRES FESTAK

09:00. Uzturrera ibilaldia eta hamaiketakoa itzuleran partaideentzat.

18:30. Talo jatea Solastoki Jubilatuen Elkarteko tabernan.

Ondoren. Izer eta Alabierrekin erromeria.

BELAUNTZA

ERRETIRODUNEN EGUNA

12:30. Meza San Juan elizan.

Ondoren. Igeldoko Lezkarri abesbatzaren kontzertua.

14:00. Bazkaria, herriko tabernan soinu jotzaileekin.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

18:00–20:00. Egutegirako argazki

aukeraketa.

18:00. Talo eta gaztaina jatea Katillutxulon.

TOLOSA

TITIRIJAI

12:30. *La ou vont danser le bete*, Zerkausian.

17:00. *Kontukantari 2*, Leidorren.

17:30/19:30/21:30. *Girovago Rondella*, Euskal Herria plazan.

18:30. *Sopa de estrellas*, Topic-en

18:30/20:30. *Antipodi*, Euskal Herria plaza.

ASTELEHENA ABENDUAK 3

BERROBI

SAN ANDRES FESTAK

16:15. Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en *Ahoa bizi, belarriak prest* dantza.

17:00. Dantza *Oh Kea: egiozu keinu euskarari dantzan*, gaztegunean.

TOLOSA

BALLET PROIEKZIOA

20:30. *Canasueces* zuzeneko ballet proiektzioa, Royal Opera Husetik, Leidorren.

ZINEMA

EL ANGEL

Larunbata (20:00).

Asteartea (20:15). Ikuslearen eguna.

Leidor, Tolosa.

EL FOTÓGRAFO DE MAUTHAUSEN

Larunbata (22:30).

Igandea (20:15).

Leidor, Tolosa.

EL REVERENDO

Ostirala (19:15 eta 21:45). Zine foruma.

Jatorrizko bertsioan.

Leidor, Tolosa.

EUSKARAREN EGUNA

ABALTZISKETA

Abenduak 2. 12.00–13.30: galdetegia betetzea eta jendearen bizipenak jasotzea (Kontselupea). 13.30: argazki erraldoia (plaza)

ADUNA

Abenduak 2. 11.45. Andoaingo Musika Banda (frontoia).

Abenduak 3. Eguerdian, Eskolako ikasleen Babarrun jatea.

14:30. Haurren herri kirolak.

15:45. Koreografia eta argazkia.

19:00. Juan Kruz Igerabideren hitzaldia (Kultur aretoa).

ALEGIA

Abenduak 3. 14:15. Bideoklip lehiaketa DBHko ikasleentzat (Kultur Etxean).

14:30. Agurra, sari banaketa, dantza eta gaztain jatea.

18:30. Euskaraldiako diana eta parte hartzaileen argazkia. Ondoren luntxa (Eizmendi).

ALKIZA

Abenduak 2. 13.00. Argazki erraldoia, kantu-saioa jan-edanean (plazan).

Abenduak 3. 17.00. Gaztaina jatea eta abesti saioa (plazan).

ALTZO

Abenduak 3. 16.30–18.30. Euskaraldiako partaideen iritzia biltzeko mahaia eta panela jarriko dira (plaza).

18:30. Elkarretaratzea, adierazpena, kantua eta argazkia (plaza).

18:45–19:45. Eztabaida mahaiak eta gaztaina erreak sagardoarekin (Batzarremuino).

AMASA-BILLABONA

Abenduak 3. 18.00. Argazki erraldoia.

AMEZKETA

Azaroak 30. 20:00. Amezketa kantarirekin kantu bira (biribilgunetik hasita).

21:00. Kantu afaria (Zazpitturri elkarteak). Euskaraldia balorazio galdetegia pasatuko da bete nahi duenarentzat.

Abenduak 3. 11:00. LH 6ko ikasleek antolatutako lehiaketaren sari-banaketa.

15:00. Zumadi Eskolako emanaldia (Kultur etxea). Kanpoan Euskaraldia balorazio galdetegia egongo da.

ANOETA

Abenduak 2. 12:00–13:00.

Hamaiketakoaren inguruan esperientzia partekatzea. Diana eta galdetegia egongo dira.

13:00. Argazki erraldoia. Aurrez eta ondoren *Kukuak kantuz*.

Abenduak 3. 19:00. Bertso-agurra herriko bertsolariekin.

Ondoren. Adierazpen instituzionala.

ASTEASU

Abenduak 2. 11:00. *Lazkao Txiki* marrazki bizidunen proiektzia (udaletxea).

12:00. Euskararen Txantxagorriaren margoketa haurrentzat (kultur etxea).

12:00–13:30. Diana osaketa.

12:15. Hamaiketakoa (kultur etxea).

13:00. Asteasuko musikarien eta bertsolarien emanaldia (kultur etxe aurrea), saskien zozketa eta argazki erraldoia.

Abenduak 3. 15:15. Euskaraldia hizkiak oholtzaratu eta eskolako belargunean landatuko dira (Pello Errota ikastetxea).

Ondoren. *Ahobizi, belarriprest* koreografia. Amaitzeko, merienda.

BALIARRAIN

Abenduak 2. 10:00. Mendi buelta

12:00. Euskaraldian parte hartutako argazkia.

BIDANIA-GOIAITZ

Abenduak 2. 12:00. Kantu jira herrian zehar.

13:00. Argazkia erraldoia.

14:30. Kantu bazkaria, Saiaz elkartean. Postrearekin batera, euskal kantak abestuko dira.

ELDUAIN

Azaroak 29. 09:15. Argazkia (plaza).

IBARRA

Abenduak 3. 19:00. Pintxo tertulia. 11



egunetako balorazioa egin eta aurrera begirako ekimenen proposamenak (Galtzaundi Taberna).

IRURA

Abenduak 3. 15:15. Ikastolako umeak kalejira Ikastolatik plazara (eguraldi txarra bada, frontoian).

15:30. Ikastolako ikasleen pregoia eta adierazpen instituzionala.

15:45. Euskaraldiari agurra: Aitor Mendiluzeren bertsoak.

16:00. Ikastolako hurrek prestatutako ikuskizuna.

16:15. Gaztain jatea.

16:40. Mosaikoa osatzea: Ahobizi eta Belarriprest irudikatuko da.

17:00. Euskaraldiaren amaierako txupinazoa.

LEABURU-TXARAMA

Abenduak 2. 11:30. Herriko dantzariak Euskaraldia kantarekin dantza egingo dute.

Ondoren. Balorazio orokorra, iritzien eta bizipenen bilketa, argazki erraldoia eta hamaiketakoa.

LIZARTZA

Abenduak 3. 18:00. Euskaraldiaren inguruko balorazio tertulia (udaletxea).

19:00. Argazki erraldoia (plaza).

Ondoren. Afari-merienda eta kantaldia (elkartea).

ORENDAIN

Abenduak 1. 11:00. Urkolamendira ibilaldia (plaza).

17:00. Aitziber Sampedro ipuin kontalaria.

17:00. Orendaingo gaztetxoek antolatua. Futbolin torneoa. Bikoteka izango da. Bikote bakoitzeko 2 euro. Eta irabazten duen bikoteak saria izango du.

18:00. Gaztaina jatea.

Ondoren. Euskal karaokea.

TOLOSA

Abenduak 3. 19:00. Elkarretaratzea, adierazpena eta argazkia (Plaza Zaharra).

Ondoren. Euskaraldiari buruzko iritzi eta esperientzia bilketa.

ZIZURKIL

Abenduak 3. 12:30. Herriko hiru ikastetxeek eta liburutegiak egindako 11 hitz irudidun liburuen aurkezpena.

Ikastola Elbarrenan eta San Millan herrigunean kantuan.

18:00. Iritzi bilketa eta Loatzo musika eskolaren emanaldia (plaza).

20:00. Argazki erraldoia.

Erraustuko gaitu



KRISTINA AIESTARAN

Hilabeteetan hondakin planak izan ditu mila aipugure zaborren kudeaketak bere garrantzia baitu nahiz Zubietan erraustegiak orain aurrera jarraitu dioxinekin egin ditzake gerora hainbat desgaitu erraustegia geratu ezean berak erraustuko gaitu.



Doinua

Zure eskaerak egia esan

Belarritxikiak eta Ahobizitxikiak prest!

Esango nuke baietz. Esango nuke balio izan duela maniak utzi eta ohitura berriak hartze-ko.

Pausoa luzatuz, ahoari belarria jartzeko balio izan du.

Argi dago baina, helduak ez ezik, txikiak ere ari direla ariketa honetan parte hartzen.

Bi kidek egin dute topo, auzoan. Euren arteko elkarrizketak «ohitugaratik» gaztelarazkoak izan dira urteetan zehar, beno, beti. Biak dira baina, euskaldunak. Hizketan ari dira eta haietariko baten alabak «eta txapa, zer?» bota die. Begiak zabal-zabal, irribarrea zein koloreak atera dizkie gurasoei.

Jarraitu dute hizketan, baina aldaketa egin dute, euskaraz ari dira orain, eta haurrak bere jolasean jarraitu du.

Txikiek ez dute erronka honetan edo ariketa honetan «txapa» jartzeko aukerarik, baina hura daramatenek zer egiten duten ikustekoa bai. Eta ari dira, ari dira gurasoak, bizilagunak, tabernariak edo dena delakoak, txapa daraman ala ez ikusten eta baita «zintzo» ari diren ala ez epaitzen.

Erronka gurea da, bai, baina eskerrak batzuetan ere baditugun gu entzungo gaituzten «belarritxikiak» prest eta kontu emango diguten «ahobizitxikiak».



ITXAROPENA URKIOLA
NEGREDO
IRAKASLEA

Biak dira baina, euskaldunak. Hizketan ari dira eta haietariko baten alabak «eta txapa, zer?» bota die

AFORISMOAK KARLOS LINAZASORO



Norbait daukagu zain

Bizi ez duguna memoriak jasotzen du, jada bizirik ez gaudenean bizi dezagun.

Norbait daukagu zain betiko, eta inoiz ezingo dugu jakin nor den.

Ezer ez da geldirik egoten zure begirada mugitzen bada.

Azpitituluak

Txikitan ez nituen gustuko azpitituluak. Uste nuen irakurri behar horrek ez zidala uzten irudia osorik eta xehetasun guztiekin ikusten. Gainera, irakurketabiadura neurtzeko azterketatzat hartzen nituen: testu zatia osorik irakurtzeko gai nintzenen, harro demonio; kontrakoa gertatzen zenean, berriz, hura kaka-nahastea. Tamalez, gehiegitan agertzen zitzaizkidan botiken iragarkiak telebistan: *Lea las instrucciones de este medicamento y consulte...* Ez, ni ere ez nintzen iristen bukaerara. Azpitituluak nuen iritzia aldarazi egin dide, ordea, azken asteotan bizi izandako bi pasadizok.

Lehena, inguruko herri txiki batean gertatutakoa. ETB2rentzat lan egiten duen ekoiztetxe bateko arduradunak herritarrekin jarri dira harremanetan. Saio bat egiteko asmoa dute, bertako bazterrek eta produktuak



**ADUR IBARGUREN
LAZKANO**
HITZ GUTXIKOA

ezagutarazteko, gaztelania hutsean. Horren aurrean, elkarrizketatu nahi duten familia batek euskaraz hitz egitea erabaki du, gaztelaniaz ez dela eta eroso sentituko. Artikulu honen

izenburua leituta, erraza da irtenbidea: azpitituluak jarri eta kito. Bada, ez; saioaren barne-araudian, politika-legean edo dena delakoan ez dute onartzen. Euskal Telebista. Harrapazank.

Bigarrena: Leidor zine-man. *Gure oroitzapenak*, Joseba Sarrionandiaren unibertso literarioa azaltzen duen film labur sorta.

Horietatik batzuk euskaraz; beste batzuk, berriz, gaztelaniaz, portugesez eta kurduez. Azpititulu guztiak gazteleraz; izenburuarena irudituzitzaidan bereziki adierazgarria: *Gure oroitzapenak-Destierros*.

Txikitan, uste nuen azpitituluak ez zidatela dena ondo ikusten uzten. Orain, aldiz, uste dut ikusten ez dena erakusten didatela.

Elkarrizketatu nahi duten familia batek euskaraz hitz egitea erabaki du, gaztelaniaz ez dela eta eroso sentituko. Artikulu honen izenburua leituta, erraza da irtenbidea: azpitituluak jarri eta kito

EGURALDIA



OSTIRALA

Giro nahasi xamarra izango dugu. Egun osoan zehar itsasotik hodeiak sartzen joango dira eta tarteka zaparradaren bat edo beste izango dugu. Zaparradak ez dira handiak izango eta gehienbat goizean emango dira. Hala ere, arratsaldean zer edo zer bustiko du. Haizeak men-



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

debaldetik joko du, tarteka bizi eta tenperatura maximoak jaitsi egingo dira, eguneko erdi-

ko orduetan 10-12 gradutan joko dute goia.

LARUNBATA

Giro lasaia eta atsegina izango dugu. Hodei ugari agertuko da zeruan egun osoz, baina hodei hauek goi-mailakoak izango dira, beraz ez dute bestelako ondorioz utzi-ko, ateri egongo da eta eguraldi lasaiaz gozatu ahalko da. Haizeak berriz ere hego ukitua hartuko du eta tenperatura maximoak erreku-peratu egingo dira, eguneko erdiko orduetan 13-15 gradu harrapatuz.

IGANDEA

Antzeko giroa berriz ere. Larunbatean bezala igandean ere goi-mailako hodei ugari ikusiko dugu zeruan, baina ez dutenez inolako ondorioz ekarriko, eguraldi lasai eta atseginaz gozatu ahalko da. Haizeak hego ukitua izaten jarraituko du eta erdi-mailako geruzetan aire epelagoa sartuko denez, lurrazalean tenperaturak gora egingo du, eguneko erdiko orduetan 15-17 graduak harrapatuz.

OSTIRALA
30



IGANDEA
02



LARUNBATA
01



ASTELEHENA
03



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburrak argitaratzeko deitu
943 65 56 95
zenbakira, idatzi
ataria@ataria.eus
helbidera edo pasa
ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak
iragarkilaburrak.eus
webgunean

FARMAZIAK



AZAROAK 30, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

ABENDUAK 1, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28.

ABENDUAK 2, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Morant, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

ABENDUAK 3, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa. Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza.

Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, solasaldi politikoa Joseba Bergaretxe, Maddi Sarasola eta Martxelo Otamendirekin, azken ostiraleko tartean Manu Azkarate preso ohia, Tolomendiren tarte eta telebista eta zinema gomendioak Alain Rekondorekin.
11:00. Hamaiketakoa. Ibarraldeko berriak.
12:00. Entzuteko jaiak musika saioa.
16:00. Zebrabidea.
18:00. Goizeko saioen onena.

LARUNBATA

11:00. Trikiti musika.
12:00. Hauspo artean trikiti saioa, Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin.
14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.
16:00. Entzuteko jaiak musika saioa.
17:00. Kokondo Oskar Tenarekin.
18:00. Entzuteko jaiak musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteko onena.
16:00. Entzuteko jaiak musika saioa.
17:00. Kokondo Oskar Tenarekin.
18:00. Entzuteko jaiak musika saioa.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza. Azken asteetako elkarrizketen eta kolaboratzaileen atalen aukeraketa.
11:00. Egun osoan euskal musika.

107.6 fm

www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.
16:30. 1,2,3 Hemen da Miru.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.
22:00. Amaia DJ.
22:30. Elikatu.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g - DONOSTIA
943 45 88 56 www.la-perla.net

• Nekane Galparsoro (Tolosa)

Ataria jarriko da harremanetan.



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

• Nekane Agirrezabala (Tolosa)
• Estitxu Kortejarena (Tolosa)

www.aquariumss.com

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.



3 IKASELKAR JOLAS ETA LIBURUAK

Neguko katalogotik euskarazko jolas eta liburuetan 50 euroko bonoa

943 225876
ikaselkar@ikaselkar.eus
www.ikaselkar.eus

• Maria Pilar Berasategi (Tolosa)

Ataria jarriko da harremanetan.



saridunak

Atarikideentzat **kaxa txuri** bat daukagu

• Maria Ines Otamendi (Tolosa)

Errigorako 'kaxa txuria'
Nafarroako produktu sorta



Ataria jarriko da harremanetan

Gama altuko
2 mó graduatu
erreflexuen
aurkako
lenteekin

229€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



iragarkilaburrak.eus

Bigarren eskuko bateria ederra

Artaldea salgai

**hemen
eta
online**